

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko otsaila / 313. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## Ba berriro!

13 hilabetez itxita egon ostean, datozen egunetan irekiko dituzte Zubikoako igerileku berriak.





Bederatzi kale izango ditu igerilekuko nagusiak. Albo batean gainera, ikusleentzako harmaila ere egokitu da. 📷 Aratz Losada

# Estreinatzeko prest

Datozen egunetan irekiko dituzte kiroldegiko igerileku berriak, aldageletan egin beharreko azken ukituak amaitu bezain pronto ■ Aforo mugak direla eta, **txanda hartu beharko da** igerilekura joateko.

**D**ata zehatza ez da oraindik jakinarazi, baina Zubikoa kiroldegiko igerileku berriak egun batetik bestera irekiko dituzte. Aldizkari hau ixteko garaian, aldageletan egin beharreko azken ukituak egiten ari ziren, eta horiek bukatu bezain pronto murgildu ahal izango gara putzu berrietan.

Kiroldegiko gune lehorreko (gimnasioa, rokodromoa, fitness gelak...) lanak amaitzeko pare

bat hilabete falta dira oraindik, baina ordura arte itxoin barik, igerilekua ahalik eta azkarren herritarren eskura ipintzea da udalaren asmoa. "Gimnasioa Eltzian daukagu, rokodromoa Zubillagan, eta fitness zerbitzuak ere eskaintzen ari gara Zubikoan eta Larrañan, baina igeri egiteko aukerarik ez dago. Gainera, mugikortasun eta aforo mugak direla eta, inguruko igerilekuetara joateko zailtasunak daude; beraz, ez

**13**  
HILABETEZ  
EGON DA ITXITA

dauka zentzurik kiroldegiko obra guztia amaitu arte itxoiteak" adierazi digu Xabier Igartua zinegotziak. "Herritarrei ahalik eta zerbitzu onena ematea da gure lehentasuna eta, beraz, gune hezeko obra bukatu bezain azkar irekiko ditugu igerilekuak, segurtasun berme guztiekin".

Oraingoz, kantxa urdineko sarreratik (gaur egun erabiltzen dena) sartu beharko gara, eta kantxa berdeko pasilloa

zeharkatuta iritsiko gara gune hezera. Igerilekuak eta aldagelak lehen solairuan daude, eta bertara igotzeko eskailerak eta igogailua daude.

### TXANDA SISTEMA

Hasiera batean, kiroldegiko abonatuak eta Aloña Mendiko igerilariek izango dute igerilekua erabiltzeko aukera, eta aurrerago hasiko dira igeriketa ikastaroak eta ur zerbitzuak (*aquagym, aquatrining...*) eskaintzen.

Igeri egitera joan nahi duten bazkideek aurrez txanda eskatu beharko dute kiroldegian, telefonoz deituta edo online **zubikoakiroldegia.oñati.eus** atariaren bidez. Ahal dela, azken aukera hau erabiltzea gomendatzen da.

Pertsona bakoitzak erreserba bakar bat egin ahal izango du hiru eguneko tartean, baina plaza librerik egonez gero, egunean bertan egin ahal izango du erreserba. Txandak ordubetekoak izango dira, eta uretan sartzeko txandak orduerdi emango dira. Modu horretan, aldageletan ahalik eta jende gutxien pilatzea lortu nahi da.

Igerileku handiko kale bakoitzean gehienez bi pertsona egon ahal izango dira aldi berean. Eta igerileku txikia lau kale edo gunetan banatuko

da, eta hauetako bakoitzean familia unitate bakarra egon ahal izango da aldiro.

Oraingoz, kiroldegiko bazkideek bakarrik izango dute igerilekua erabiltzeko aukera; hau da, ez da eguneko abonoa erosteko aukerarik egongo.

### IRISGARRITASUNA

Ur putzuak handitzeaz gain, irisgarritasun edo akzesibilitatean ere hobekuntza nabarmenak egin dira, berritze lanak baliatuz. Hala, azpimarratzekoa da, mugikortasun arazoak dituen pertsona bat eskailera-maila bakar bat bera ere igo barik sartu ahal izango dela igerilekuan. Eta ur putzuko sartu-irtenak modu erosoan egiteko ere arripala bana egokitu da igerileku handian zein txikian.

### GEOTERMIA

Igerileku handiak 9 kale ditu orain (lehengoak 5 zituen), baina ur putzuaren sakonera murriztu egin da (1,30 eta 1,60 metro arteko sakonera du) eta, beraz, ur kopurua oso antzerakoa da lehen eta orain. Horrek esan nahi du, ura berotzen gastatuko den energia kopurua antzekoa izango dela, edo agian txikiagoa, geotermia instalazioari esker. "Lurraren

**«Obra erabat bukatu gabe badago ere, segurtasun berme guztiekin irekiko dugu igerilekua»**

**«Igeri egitera joateko, telefonoz edo online bidez erreserba egin beharko da»**

**«Kiroldegiko bazkideek eta Aloña Mendiko igerilariek izango dute igerilekua erabiltzeko aukera»**

**«Geotermia sistemari esker, gas gutxiago erabiliko dugu ura berotzeko»**

**Xabier Igartua**  
Zinegotzia

bero-energia aprobetxatzen duen geotermia sistema instalatu dugu, eta horri esker gas gutxiago erabili beharko dugu ura berotzeko" azaldu digu Igartuak. Teilatuan dauden eguzki plaka termikoek ere laguntzen dute ura berotzen. Kontuan hartu behar da, gainera, kiroldegiko eraikin osoaren (teilatua, hormak, zoru...) isolamendua hobetu dela, energia eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

Igerileku handiko ura 27,5-28 gradu artean egongo da, eta ur putzu txikikoa 29-30 artean.

### KLORATZE SISTEMA

Igerilekuko uraren kloratze sisteman ere bada berritasunik. Normalean erabiltzen den kloroa gogorregia gertatu ohi da, eta zenbait jenderi arazoak sortzen dizkio azalean eta begietan. Horregatik, beste igerileku batzuetan emaitza onak eman dituen sistema erabiliko da Zubikoan ere. "Gatzetik — kloruro sodikoa — hartzen da kloro naturala, gero berriz urari gehitzeko" azaldu digu Igartuak.

### BALORAZIO POSITIBOA

Igerileku berriak ireki bezperatan, oso gustura dago Igartua berritze lanen emaitzarekin. "Posible ote zen zalantzak zeuden arren, igerilekua 5 kaletik 9ra handitzea lortu dugu, Zubikoan bertan, herriaren erdigunean, eta hori inportantea dela uste dut. Gainera, atzerapen handi barik egin dugu obra, Covid-ak baldintzatutako urtea pasa dugun arren". Urtebeteko itxaronaldiak merezi izan duelakoan dago Igartua. "Askotan esaten da, igerilekua dela kirol azpiegitura demokratikoenetako bat, adin guztietako herritarrek erabili dezaketelako, berdin eliteko kirolariek edo erreabilitazioa egin behar duten pertsonak, eta, beraz, uste dut azpiegitura hau inportantea izango dela, bat datorrelako gure herriaren bilakaera demografikoarekin".



Igerileku txikia lekuz aldatu eta eraikin zati berrian kokatuko da.





**SARRERA |**  
Gaur egun erabiltzen dugun sarrera bera erabili beharko dugu.

## Garai berrietara egokituriko instalazioa

Eraikinari ez ezik, eraberritze integral bat egin zaio Zubikoa kiroldegiari, marka edo irudi korporatibo berria ere estreinatuko baitu.


Eraberritzearen lehen fasea amaitzeaz dagoen honetan, Zubikoa garai berrietara egokituriko eraikina izango dela esan daiteke. Espazio zabalak ireki dira zona hezean eta besteak beste, irudi korporatibo berriari esker, estetikoki itxura dotorea izango du. Nortasun eta izaera propiodun kiroldegi modernoa.



**PASILLOA |**  
Kantxa berdeko pasilloa gurutzatuz iritsiko gara zona hezera.



**IRISGARRITASUNA |**  
Igerileku handian zein txikian sartzeko arrapalak egokitu dira.



**ALDAGELAK |**  
Hiru aldagela egongo dira. Emakumeena, gizonena eta mixtoa.



**GOIKO SOLAIRUA |**  
Aldageletak sarrera berria lehen solairuan egongo da.





Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),  
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.  
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 · 20560 Oñati · Gipuzkoa · T. 943 783657 / 646 023570  
info@casaruralarregi.es ■ [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es)



## "Bilboko AS Fabrik proiektu berriak Oñatiko Enpresagintza fakultatea indartzen lagunduko du"

**LANDER BELOKI MENDIZABAL**

Mondragon Unibertsitateko  
Enpresagintza fakultateko dekanoa

# MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ERAIKIN BERRIA INAUGURATU DU ZORROTZAURREKO UHARTEAN

Bilboko udala buru, eta lankide-sare zabal baten babesean (Mondragon Taldea, Deusto Foundation Orkestra, EIKEN, GAIA, IDOM eta Bilbao Ekintza) burutu den AS FABRIK (Advanced Services Fabrik) proiektuaren baitan, Mondragon Unibertsitateak campus berria inauguratu du Zorrotzaurren. Bilboko uhartean ekintzailera- eta berrikuntza-ekosistema bat sortzea da AS FABRIK-en helburua. MUko Enpresagintza fakultateko dekanoa den Lander Belokik azaldu digu urrats berri honen garrantzia.

### Noiz eta nola sortzen da Bilboko udalarekin elkarlanean campus berria sortzeko aukera?

2013an Bilbao Berrikuntza Faktoria jarri genuen abian udalaren laguntzarekin, Uribitarte pasealekuan. Ekintzailetasuna eta berrikuntza sustatzeko ekosistema bat sortzea zen helburua, agente edo eragile ezberdinekin elkarlanean, unibertsitatearen eta enpresa berritzaileen arteko sinergiak bultzatuz.

Proiektu hark izandako arrakasta ikusita, Bilboko udalak proposatu zigun degradatutako hiriguneak berreskuratzeko Europar Batasuneko programa baterako proiektu bat aurkeztea, eta halaxe sortu zen AS FABRIK BILBAO (Advanced Services Fabrik) zerbitzu aurreratuen fabrika,

Bilbo erdian dagoen Zorrotzaurre uhartean jarduera ekonomiko berritzaileak sustatzeko asmoz.

Bilbao Berrikuntza Faktoriaren antzeko espazio bat sortzea zen helburua, industriaren eraldaketa digitalera eta industria 4.0 bezala ezagutzen dugun horri bultzada emateko, eragile ezberdinen parte hartzearekin (unibertsitatea, ekintzaileak, *startup*-ak...).

Laurehundik gora proiektu aurkeztu ziren deialdira, eta Europar Batasunak aukeratutako 25en artean zegoen gurea, eta horren emaitza da inauguratu berri dugun campus berria.

**Urrats garrantzitsua, inondik ere, Mondragon Unibertsitatearentzat.**

Bai. Guretzat gune estrategikoa

da Bilbo, euskal gizartearen duen pisuagatik, eta nazioartekotze bidean erraztasun handiagoak ematen dituelako.

### Nolakoa da MUren Bilboko campus edo egoitza berria?

Bere garaian torloju lantegi bat izandako eraikinean egokitu dugu. Ia 9.000m<sup>2</sup>-ko azalera du lau solairu eta solairuarte baten artean banatuta.

Oraingoz, bi solairu eta solairuarte okupatu ditugu. Ikasgelak, hiri-laborategia eta prototipoak lantzeko *maker* gunea egokitu ditugu bertan. Goiko bi solairuak guztiz amaitu gabe daude oraindik; 2022ko irailera egongo dira prest, eta, batez ere, *startup* eta enpresa berritzaileak kokatuko dira bertan. Lehen esan dudan moduan, ikasle, ekintzaile, ikertzaile eta mentorez osatutako komunitatea sortzea da gure helburua, eta kalitatezko formazioa ez ezik, hitzaldi, kongresu eta topaketa interesgarriak antolatuko dituen gune bizi eta irekia sortzea, Bilbo



**Guretzat gune  
estrategikoa da  
Bilbo, euskal  
gizartearen duen  
pisuagatik, eta  
nazioartekotze  
bidean  
erraztasun  
handiagoak  
eskaintzen  
dituelako**



inguruko eta, oro har, Euskal Herriko enpresa, eragile eta profesionalentzat erreferentziazkoa izango dena.

### Zein kostu izan du proiektuak, eta nola finantzatu da?

Europar Batasunaren 9,4 milioi euroko finantzaketa du proiektuak, bi programaren bidez: UIA (Hiri Jarduera Berritzaileetarako programa) eta DUSI (Hiri Garapen Iraunkor eta Integraturako Estrategiak). Mondragon Unibertsitateak eraikinaren barneko altzarien kostuaren gehiengoa hartu du bere gain.

### Oraingoz, bost unibertsitate titulu eskainiko dituzue campus berrian.

Bai, oraingoz lau gradu (*Ingeniaritza Mekatronikoa -duala-*, *Business Data Analytics*, *Humanitate Digital Globalak*, eta *Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza -duala-*) eta master bat (*Ikaskuntza Erraztea eta Berrikuntza*) eskaintzen ditugu Zorrotzaurreko campusean.

Bestalde, Bilbao Berrikuntza Faktoriako eraikinean bi master (*Erakundeen Internazionalizazioa eta Marketin Digitala*) eta profesionaleri zuzendutako beste zenbait master programa eskaintzen ditugu. Irailetik aurrera Zorrotzaurrera eramango ditugu master hauek, eta Berrikuntza Faktorian LEINN gradua (*Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza*) garatuko dugu.

Aurrerago, master eta aditu edo espezializazio programa berriak (robotika, inteligentzia artifiziala, datuen analisia...) ere eskainiko ditugu Zorrotzaurren, baina, betiere, eraldaketa digitalera zuzendutako formazio



Zorrotzaurre uhartearen erdian dago AS FABRIK eraikina, Sarrikoren parean. Hurrengo urteetan Bilboko udalak eraikiko duen zubi berriaren kokapena ere ikus daiteke goiko argazkian. Behean, Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea, eta Vicente Atxa, MUko errektorea, AS FABRIK-en inaugurazioan., eta eraikin berriko ikasgela eta laborategietako bana



programak izango dira.

### Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateak (Goi Eskola Politeknikoa, Enpresagintza eta Huhezi) eraikin berean egongo zarete aurreneko aldiz.

Hala da, bai, eta uste dut oso aberasgarria izango dela. Orain

arte ere, fakultateen arteko harremana eta interkooperazioa oso garrantzitsua izan da, baina espazio berean egoteak indartu egingo du elkarlan hori, izan ere, gaur egungo enpresen erronkei erantzuteko izaera hibridoko proiektuak bilatzen dira gero eta gehiago, hau da, teknologia ez

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
OÑATI



ezik, kudeaketa eta humanismoaren ikuspuntua ere jorratzen dutenak, eta ikuspegi horiek denak integratzeko aukera izango dugu AS FABRIKen.

**Oraingoz 228 ikasle ari dira Zorrotzaurreko campus berrian, baina 1.000 lagun hartzeko edukiera izango omen du.**

Bai. Une honetan lehen eta bigarren kurtsoko ikasleak ditugu Zorrotzaurren, eta hiruzpalau urte barru 800 bat ikasle izatea aurreikusten dugu. Horiez gain, beste 200 bat lagun egongo dira ekintzaile, *startup* eta enpresa mintegietako kideen artean.

**Zorrotzaurreko campusean, besteak beste, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua eskaintzen duzu. Hori ez al da Oñatiko Enpresagintza fakultatearen kalterako izango?**

Ez. Guk garbi daukagu gure oinarriak eta gure sustraiak Oñatin daudela, baina, aldi berean, garbi dago beste toki batzuetara zabaltzeko gaitasunak erakarriago bihurtzen gaituela eta indartu egiten duela Oñatiko proposamena. Orain dela 18 urte Oñatin bakarrik geunden, eta gaur egun Irun, Bilbo, Madril, Bartzelona, Valentzia, Mexiko eta Korean dago Enpresagintza fakultatea. Horrek sendotu egin du gure eskaintza, eta Bilbon eman dugun urrats berria ere ildo berean doa.

**Osasuntsu dago, beraz, Oñatiko Enpresagintza fakultatea?**

Bai, une honetan 1.800 ikasle ditugu, lehen aipatutako egoitza horietan banatuta, eta Euskadin bakarrik ia 145 langile gara, duela zortzi urte baino halako bi



## UNIBERTSITATE TITULUAK - AS FABRIKen

Oraingoz, bost titulu eskainikoditu MUK Zorrotzaurren:

- Ingeniaritza Mekatronikoa gradua (Duala)
- Business Data Analytics gradua
- Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa gradua (Duala)
- Humanitate Digital Globalak gradua
- Ikaskuntza Erraztea eta Berrikuntza masterra



«  
**Kalitatezko formazioa emateaz gain, hitzaldi, kongresu eta topaketa interesgarriak antolatuko dituen gune bizia eta irekia izatea nahi dugu**

gehiago. Eskaintzari dagokionez, hiru gradu (*Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza, eta Business Data Analytics*) eta dozena erdi bat master ofizial eta profesionaleri zuzendutakoak eskaintzen ditugu.

Gizartearekiko gure ekarpena (formazioa, ikerketa, transferentzia...) handituz doa, eta garbi dago, duela hamaika urte, Oñatiko herriarekin batera fakultate berria eraikitzeko hartu genuen erabakia egokia izan zela, eta urratsak ematen jarraituko dugula unibertsitate fakultate sendo eta internazionala garatzeko. ■



## Finalista CEL sarietan

Mondragon Unibertsitateko irakasle eta, besteak beste, Oñatiko udaleko Hezkuntza batzordeko buru den Alaitz Kortabarriaren tesi lana CEL (Centro Español de Logística) sarietan finalista izan da, unibertsitate mailako ikerketa lanen arloan.

Industria antolakuntzako goi mailako ingeniaria da Kortabarria, eta, hain zuzen ere, logistikaren arloan egindako tesi lana izan da CEL-Universidad sarietan Espainia mailan izendatu dituzten hiru finalistetako bat.

Stock-a eta materialen fluxua egoki antolatzeko, eta zerbitzu maila ahalik eta altuena izateko asmoz, DDMRP (*Demand Driven Material Requirement Planning*) metodologia inplementatu zuten sektore ezberdinetako hiru enpresen jarduna aztertu zuen Kortabarriak bere tesian.

Oso pozik jaso du saria Kortabarriak, lanaren aitorza egiteaz gain, ikerketa lerro berriak sortzeko lagun-garria izan daitekeelako.



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)



# garmendia tejas



///  
Era guztietako teilatu  
eta  
egurrezko egiturak  
///



25 urtetik gorako esperientzia daukagu eta urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu. Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara estalkiak eta fatxadak eraiki eta birgaitzeko lanetan.

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Azkar egiten  
dugu lan



Kalitate-prezio  
onena.



Osoko  
zerbitzua

# Yoga Lesbosen

Yogaren bidez Lesboseko kanpalekuan dauden errefuxiatuei laguntzeko bidea aurkitu du Miren Zubeldia Plazaolak



Gerretatik edo pobreziatik ihesi, kanpalekuetan pilatuta, baldintza oso gogorretan bizi diren errefuxiatuei laguntzeko modu asko daude. Miren Zubeldia Plazaolaren (Oñati, 1984) kasuan, yoga da bidea. 2019ko udan joan zen aurrenekoz Lesbos-era (Grezia), *Yoga and Sport For Refugees* GKEaren bitartez, eta bertatik bertara ikusi ahal izan zuen, yoga oso lagungarria zela errefuxiatuen egunerokoa eramangarriago egiteko. Iazko udan ere bertan izan zen, Moriako kanpalekua su-garretan kiskali baino egun batzuk lehenago, eta pasa berri diren Gabonetan ere bertan izan da. "Hango errealitatea bertatik bertara ezagutzen duzunean, aurpegiak, izenak,

bizipenak... ipintzen dizkiozunean, zure parte bihurtzen dira, eta hemen nagoenean ere oso presente daukat hango egoera" dio Mirenek. Horren lekuko, urtarrilean zehar antolatu dituen bi elkartasun yoga saioak.

Lesboseko irlan, *Kara Tepeko* kanpalekutik gertu dagoen *One Happy Family* izeneko komunitate zentroan eman ohi ditu yoga saioak Mirenek. GKE ezberdinei aterpea ematen dien zentroa da. Liburutegia, ordenagailu gela, emakumeentzako gunea, konponketak egiteko tailerra eta yoga praktikatzeko espazio bat daude bertan, besteak beste. "Kirola eta beste aktibitate batzuk egiteak arnasa ematen die errefuxiatuei, deskonektatzeko

Miren, yoga saio bat gidatzen Lesbos-eko *Yoga and Sport for Refugees* erakundearen zentroan

**Yoga saio solidarioak antolatzen ditu Mirenek, Lesboseko errefuxiatuekin elkarlanean**

unea izaten da" dio Mirenek. "Yogak laguntzen die erlaxatzen, estresa arintzen, pakea eta lasatasuna sentitzen, beraien arteko hartu-emanak sendotzen... eta, egia esan, oso harrera ona du".

Aurreko bi egonaldietan Moriako kanpalekura ere joaten zen, adin txikikoei zuzendutako yoga eskolak ematera, baina oraingo honetan oso bestelako egoera aurkitu du Mirenek. Pandemiaren ondorioz mugimenduak oso mugatuta daude, polizia trabak asko jartzen ditu, eta ezin izan da kanpaleku berria sartu. "GKEko kideekin eta yoga irakasle bezala trebatu diren errefuxiatuekin egon naiz, tailerrak egiten, yoga saioak grabatzen, eta 2021era begira ditugun proiektuak eta elkarlanerako aukerak aztertzen. Azken batean, elkarrekin lana egitea da helburua; ez beraieneztat, beraiekin baizik. Beraiek izatea hango aktibitateak kudeatuko dituztenak, horretarako behar dituzten baliabideak eskainiz".

## 'YOGA HOMA'

*Yoga Homa* du izena horietako proiektu batek. *Yoga Sin Fronteras* gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean jarri dute abian, eta Lesboseko errefuxiatuek prestatzen dituzten yoga saioak balioan jartzea du helburu, Mirenek azaldu digun mo-

**JUANJE MARGOAK**

**T. 627 818 247**

*Zure etxebizitzaren hobetzeko prest*

**Amara igartua**  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)  
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



duan. "Batzuetan, beraiek grabatutako yoga saioen bideoak eskaintzen ditugu internetez. Beste batzuetan, yoga saio solidarioak antolatzen ditugu, eta jasotzen ditugun diru ekarpenak errefuxiatuentzat izaten dira. Aurten asmoa daukat zuzeneko konezioak egitea on-line Lesbosekin, beraiek konta diezaguten zein lan egiten duten, eta zein den hango egoera. Hemengo saioak presentzialak izaten dira, baina agian, on-line egiteko aukera ere emango dugu, jende gehiagori zabaltzeko. Erantzun polita izaten dute".

### 'KAIROS' PROIEKTUA

Yoga eskolak emateaz gain, emakume errefuxiatuei zuzendutako *Kairos* izeneko ekimen batean ere parte hartu du Mirenek. "Lasarteko eta Madrileko bi emakumek sortutako proiektua da, eta kanpalekuan bizi diren emakumeen arteko komunitate bat sortzea du helburu, elkar ezagutzeko eta beraien kezkek eta egarriak jorrazteko gune seguru bat eskaintzeko. Formazio saioak antolatzen dira, laguntza psiko-soziala ematen zaie, eta behar handiena duten produktuak (haurrentzako fardelak...) helarazten zaizkie". Covid-19a dela eta, proiektu hau ere gelditu dago orain, beste asko bezala.

Mirenek aitortu digunez, plana edo programa gehiagi zehaztu barik joaten da Lesbosera, eta bertan ikusten dituen beharren arabera saiatzen da ahal duen guztian laguntzen. "Gabonetan, adibidez, *Zaporeak* taldekoei laguntzen egon naiz, hain zuzen ere Euskal Herritik bidalitako jakiekin poltsak antolatzen. *Yoga and Sport for Refugees* erakun-



Kara Tepe kanpalekuko errefuxiatu talde bat yoga praktikatzen



### » MIREN ZUBELDIA PLAZAOLA

**"Badakit hara joanda ez dugula ezer konponduko, baina errefuxiatuentzat inportantea da beraietaz kezkatzen den jendea badagoela ikustea"**



Miren, Kairos proiektuko emakume talde batekin lanean

dearekin ahal ziren aktibitateak egin ditugu, eta 'taxilari' lanak ere bai; *Kara Tepeko* kanpalekua hiriburutik 45 bat minutura dago, oinez, eta txofer lana askotan egin behar izaten da GKEetako boluntarioen lan-karga arintzeko". Bertako egoeraren inguruan argazki erreportai bat burutu duen bere bikotekideari laguntzen ere ibili da Miren.

### LAGUNTZEKO MODUAK

Errefuxiatuei laguntzeko modu asko daude. Jende askorentzat, dirua ematea da laguntzeko bidea, eta hori ere inportantea da, han lanean diharduten GKEek behar handiak izaten dituztelako.

Baina bertara joatea ere inportantea dela dio Mirenek. "Zure presentzia hutsa, energia freskoa eta berria eramatea, oso inportantea da, bai boluntarioentzat eta baita errefuxiatuentzat ere. Beraietaz kezkatzen den jendea badagoela ikustea oso inportantea da eurentzat, askotan abandonatuta sentitzen baitira".

"Gu bezalako pertsonak dira, eta oso injustua iruditzen zait" jarraitzen du Mirenek, "gu hemen jaio garela eta beraiek beste leku batean, halako desberdintasunak egotea. Badakit hara joanda ez dudala ezer konponduko, baina laguntzeko bideak ireki ditzakegu gure egoera pribilegiatu honetatik".

Sare sozialen bidez ere, gaur egun elkartasuna erakustea oso erraza dela uste du Mirenek. Instagramen kontu bat baino gehiago dago (@the\_humans\_of\_moria, @eyes\_of\_refugee...) hango berri ematen dutenak, eta horiei 'like' bat emate hutsak asko esan nahi du beraietaz". ■



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



# Basogintzaren krisia Euskal Herrian eta eukaliptoaren hedapena aztergai

## INGURUMEN JARDUNALDIETAN



Ingurumen jardunaldi interesgarriak antolatu dituzte aurten ere Oñatiko Natur Eskolako kideek. Otsailaren 2 eta 3an izan genituen aurreneko bi hitzaldiak, hainbesteko buruhauste ematen ari zaigun COVID-19aren eta birusek gizakiekin duten harremanaren inguruan. Hurrengo bi hitzaldietako gaiak bestelakoak izango dira, baina interes handikoak hauek ere: basogintzaren krisia Euskal Herrian, batetik, eta Euskal Herriaren historia geologikoa, bestetik. Horiez gain, erakusketa, zine klub emanaldiak, zuhaitz ferixia, landaketak, eta Arantzazu errekan barrena egingo den ibilaldia ere antolatu dituzte, jarraian azaltzen den moduan.

### • HITZALDIA

## Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintzaren erronkak

OTSAILAK 9, ASTEARTEA, KULTUR ETXEAN, 18:00  
Hizlaria: Arturo Elosegí, Ekologia katedraduna, EHUko irakaslea



Euskal Herriko basogintza aspaldi dago krisian: prezioen gorabeherak, errelebo faltak eta landaketen izurriteek pinuaren gainbehera eta baso-etorkizuna birplanteatzeko beharra ekarri dute. Azken urteotan gertatzen ari den aldaketarik handiena eukaliptoaren hedapena izan da, baina hainbat ikerketa zientifikok agerian utzi dute zuhaitz horiek ingurumen-inpaktu kaltegarria dutela ingurumenean, batez ere biodibertsitatean. Ildo horretan, mundu mailan bizi dugun krisi ekologikoari aurre egiteko, ezinbestekoa da gure aztarna ekologikoa murriztea. Beraz, garbi dago erronka handia dugula aurrean: Euskal Herriko ingurumena zainduko duen baso-eredu bat bilatzea.

### • HITZALDIA

## 'Lurraren bidean' dokumentala. Euskal Herriko historia geologikoa

OTSAILAK 10, ASTEAZKENAKULTUR ETXEAN, 18:00  
Aurkezlea: Jon Betanzos geologa



Euskal Herriko Unibertsitateko Geologia saileko hiru irakaslek, Aranzadi Zientzia Elkartarekin elkarlanean, Euskal Herriko geologiari buruzko 'Lurraren bidean' dokumentala egin dute. Egun zuhaitzez, eremu landatuz eta herriz beteta ikusten ditugu lur eremuak iragan batean dinosauroek bazkatzen zuten ibai sareak, deltak eta arrezifez inguratutako itsaso tropikalak ziren. Paisaia eta klima aldaketa hauen frogak arroketa daude idatziak, eta geologoek begiak erabiliz, historia zoragarriak kontatzen dituzte. Gure herriaren historia geologikoaren altxorak deskubrituko ditugu. Jon Betanzos geologoak aurkeztuko du saioa.

Hitzaldiak zuzenean '[Youtube/Oñatiko Udala](#)' kanalean ikus daitezke, eta bertan geldituko dira igota

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teleline.es](mailto:inkorta@teleline.es)

## Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)



**INGURUMEN**  
**JARDUNALDIAK**  
**Egitaraua**

**ERAKUSKETA**  
**'Jakinduria tradizionalak eta biodibertsitatea'**  
OTSAILAK 1-24  
Kultur etxean (18:00-20:00)

**HITZALDIAK**  
**'Pinutik eukaliptora?'**  
OTSAILAK 9  
Kultur etxean (18:00)  
**'Lurraren bidean'**  
OTSAILAK 10  
Kultur etxean (18:00)

**IRTEERA**  
**Arantzazu erreka-ren arroa eta Gesaltzako lizuna**  
MARTXOAK 13  
Izen-ematea eta informazioa:  
natureskola@yahoo.es

**ZINE KLUBA**  
**'Honeyland'**  
OTSAILAK 4  
**'Dehesa'**  
OTSAILAK 11



**ZUHAITZ FERIXIA**  
MARTXOAK 6  
Herriko plazan, 9etatik aurrera

**ZUHAITZ EGUNA**  
MARTXOAK 7  
Herriko plazan, 10:00etan

**ZUHAITZ EGUNA,**  
**ALOÑAKO LAGUNEKIN**  
MARTXOAK 14, IGANDEA  
Unaimendin, 10:00etan



## PUTZUAK, BIZI ITURRI

Argazkiak erakusten duen moduan, udalak informazio panelak ipini ditu Belatxarako eta Olapotoko anfibia-entzako putzuetan. Oñatiko natur eskolako kideen ekimenez sortu ziren bi putzuok, auzolanean eta Aranzadi zientzia elkarteko adituen gidaritzapean. Orain putzu horien funtzioa, garrantzia eta hauen inguruan sortzen den bioaniztasunaren inguruko informazioa ematen duten panel bana ipini dituzte putzuen ondoan.

Bertan irakur daitezkeenez, hainbat urtetan halako hezeguneak desagerrarazteko joera egon da, osasungaitzat jotzen zirelako eta, ondorioz, inguru hauetara hertsiki lotuta dagoen biodibertsitatea kaltetua izan da. Horregatik, habitat hauen berreskurapenak aukera berria ematen die hezeguneetako landarediari, anfibioei (mundu mailan mehatxatuen dagoen ornodun taldea) eta ornogabeei.

Halako putzuen inguruan bizi diren anfibioren (baso-igelak, txantxikuak, apoak, uhandreak, ur igelak...) eta odonatoen (burruntzia, sorgin-orratza...) ezaugarrien berri aurkituko dugu panelean, eta baita espezie hauek ekosistemetan duten funtzioaren eta garrantziaren berri ere.

XIAOMI Mi Band 5

erloju adimenduna

OPARI

Atzeko Kaleko dendan,

GUUK fibra + mugikor linea pack berria kontratatzen dutenei

Online eskaintza ez da erabilgarri egongo. Soilik dendara hurbiltzen direnentzat izango da eskaintza. Instalazioa amaitutakoan entregatuko da eskumuturreko.

Zuntza | Mugikorra

600 Mb | 7 GB

Simetrikoko | + Dei mugagabeak

+ telefono sintonia + 1GB-ko linea bat duzun

IRAUNKORTASUNIK GABE

42 €

HILEAN BEZa barne

BETIRAKO

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati  
943 09 06 00

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZa barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarran Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko duak Guuk tarifa. "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hausten bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifako linean prezioak izango dituzte, GB eta daturako murrizketak bezalakoak. 1GB-ko duak Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 6,9€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorraren gehienezko kopurua 4 litro da, linea nagusia kontratatu hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigortik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratatu: sintonia eta mugikor narrazioa/entzako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB rokin. Muga hori gainditzean, abiadura 16 Kbit/s-ra jaitsiko da. Nahiz duzunon eman diezakezue baja zerbitzuari, baina bideratzalea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1216-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu generako baldintzak hemen: [www.guuk.eu](http://www.guuk.eu)

# JABETZE ESKOLA

EMAKUMEENTZAKO



Udaleko Berdintasun sailak 2020/2021 ikasturterako antolatu duen JABETZE ESKOLAK bere bidea egiten jarraitzen du. Otsailarekin batera bi tailer edo ikastaro jarriko dira martxan, eta bi hitzaldi-solasaldi ere izango ditugu. Gogoratu, tailer bakoitza hasi baino zortzi egun lehenagora arte dagoela zabalik izen-ematea, HAZ bulegoan edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean. Informazio gehiago: [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) / 943780411 (010).

2020-2021  
ikasturteko  
Jabetze Eskolako  
ikastaroen  
egitarau osoa

## • IKASTARO-TAILERRAK

### 'MENDI ORIENTAZIOA'

Emakumeon artean mendizaletasunak gora egin du azken urteetan, baina sari besteen gidaritzapean edo lagunduta egiten ditugu mendi irteerak. Ikastaro honetan autonomia osoz, guk geuk erabakitako lekura joateko ibilbideak diseinatzeko ikasiko dugu. Mendian era seguruan ibiltzeko orientazioko oinarriko ezagutza teoriko-praktikoa ere jasoko dugu. Horretarako mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasiko dugu era praktikoan. Patri Espinarrek gidatuko du ikastaroa. Otsailaren 19, 20, 26, 27 eta martxoaren 12 eta 13an (21 ordu guztira). Prezioa, 20€.



Patri Espinarrak  
gidatuko du ikastaroa

## NOKA, EMAKUMEON AHALDUNTZERAKO TRESNA

Oñatiko emakumezkoen hitanoa berreskuratzea helburu duen *Ingo xonau!* proiektuko kideen laguntzarekin, **Noka** ikastaroa antolatu da Jabetze Eskolaren baitan. Azarotik otsailera bitartean talde bat aritu da lanean Beatriz Irizarrek gidatuta. Hika noiz eta norekin egiten den, eta gehien erabiltzen diren aditzak landu eta praktikatu dituzte. Eta jendea egarriz dagoela ikusita, bigarren ikastaroa abian jartzea erabaki da. Otsailaren 16an hasiko da, asteartetan (18:00-20:00). Prezioa: 20€.



Noka ikastaroan parte hartzen ari diren emakumeetako batzuk

Noka  
(emakumeen  
hitanoa)  
ikasi eta  
praktikatzeko  
ikastaroan  
bigarren taldea  
osatu da

## • HITZALDI-SOLASALDIAK

### 'MICROFÍSICA SEXISTA DEL PODER'

OTSAILAK 24

Sexu indarkeria kasuei hedabideetan emandako trataera aztertuz argitaratu zuen Nerea Barjolak (Santurtzi, 1980) 'Microfísica sexista del poder' (Virus Ed., 2018). Alcasserko nesken hilketei komunikabideek emandako tratamendua baliatu zuen idazle eta ikerlari feministak, izu sexualari buruzko kontakizunak nola zabaltzen diren aztertzeko. [Kultur etxeko zineman, 18:00etan \(gazteleraz\).](#)



### 'NO HAY MATRIARCADO NI EN EL SUPERMERCADO'

MARTXOAK 3

Irantzu Varela (Portugalete, 1974) kazetari eta militante feminista-ren 'Matriarkaturik ez, ezta supermerkatuan ere' bakarrizketa saioa entzuteko aukera izango dugu. Aurretik, *Setem Hegoa* Hizea elkarteak 'Violencia machista y consummo' gaiaren inguruan egindako azterlanaren emaitzak aurkeztuko dira. [Kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan \(gazteleraz\).](#)



**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
[www.sanmiguel.coop](http://www.sanmiguel.coop)

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL / FAXA: 943 78 14 59 [limabarsal@gmail.com](mailto:limabarsal@gmail.com)  
[www.egur-lan.es](http://www.egur-lan.es)



# INDARKERIA MATXISTA COVID GARAIAN

Konfinamenduak eta COVIDaren krisiak indarkeria matxistetan izan duen eraginaren inguruko azterlana egin du Udalak, indentifikatutako behar berriei egoki erantzun ahal izateko

2020 urtean, eta osasun krisia dela medio, indarkeria matxistaren detekzio eta arretarako moldeak aldatu behar izan ditu udalak.

Indarkeria matxistak molde berriak hartu ditu konfinamendu garaian, bai eta konfinamendu osteko garaian ere. Berezitasun horien inguruko unean uneko irakurketak egin dira, baina hausnarketa orokor baten beharra ikusi du udalak, azaroko osoko bilkuran onartu zen adierazpen instituzionalak jasotzen zen moduan.

Urte amaieran erakundeen arteko koordinazioerako protokoloari esker lortu diren datuetan oinarrituta eta urtean zehar mugimendu feministatik eta bestelako instituzioetatik eskaintako irakurketak kontuan hartuta, Oñatiko errealitatearen inguruko azterketa bat burutu nahi izan da.

Azterketa horren bidez, Oñatiko errealitatea ezagutu, Covid egoeran eskaini diren baliabideen eta arretaren inguruko balorazioa egin, eta aurrera begirako hobekuntza arloak eta lan ildo nagusiak identifikatzea izan da lan honen helburu nagusia.

## EMAITZA NAGUSIAK

Hona hemen, laburbilduta, azterlanak eman dituen emaitza aipagarrienak.

- Oñatin 2020. urtean 15 emakumek jo dute Ertzaintza edo gizarte zerbitzuetara indarkeria matxista dela eta.

- Indarkeria matxista bizi duten emakumeen kopurua eta urtean zehar emandako tendentzia Oñatin eskualdeko beste udalerriekin alderatuta oso antzekoa da. Itxialdian genero indarkeriagatik jasotako biktimizazioak jaitsi egin ziren, beste herrietan gertatu bezala. Indarkeria jasaten ari ziren emakumeak oso egoera zaurgarrian utzi zituen etxean geratzeko aginduak, erasotzai-

learengandik ezin banandu, laguntza eskatzeko baliabideak murriztuta, isolamendua areagotuta, eta abar. Gizarte zerbitzuetatik telefono bidezko jarraipena egin zitzaien aktibo zeuden kasuei, eta bereziki indartu zen telefono eta whatsapp bidezko baliabideen inguruko informazio kanpainak.

- Aurten laguntza eskatu duten emakumeen %92, gipuzkoarra da jaiotzez, eta adinaren batz bestekoa 40 urte ingurukoa da.

- Emakume horien erdiak, adin txikikoak ziztuzten euren kargu, laguntza eskatutako unean.

- Aurten jasotako kasu guztietan indarkeria psikologikoa jasan izana aipatzen da, kasuen %50ean indarkeria fisikoa, %66.6ean indarkeria ekonomikoa, eta %25ean indarkeria sexuala.

Zalantzarik gabe, ikerketa honek aurrera begirako zenbait lan ildo argitu ditu, bizitako indarkeria salatzea edo laguntza eskatzera iristen diren emakumeei eskaintzen zaien arreta hobetu, eta indarkeria matxista bizi duten emakumeek laguntza eskatzeko urratsa eman dezaten erraztasunak eta baliabideak eskaintzeko. ■

## ▶ DATUAK

2020an, Oñatin, 15 emakumek jo dute Ertzaintzara edo gizarte zerbitzuetara indarkeria matxista dela eta

Laguntza eskatu duten emakumeen %92 gipuzkoarrak dira sortzez, eta 40 urte ingurukoak dira, batz beste

Kasu guztietan indarkeria psikologikoa pairatu izana aipatzen da; kasuen %50etan indarkeria fisikoa, %66,6an indarkeria ekonomikoa, eta %25ean sexuala

## GOGORATU

Informazioa behar baduzu, hitz egin nahi baduzu, laguntza behar baduzu, Oñatiko udaleko Berdintasun departamendurekin edo Gizarte Zerbitzuekin jar zaitezke harremanetan, edo Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen 24 orduko arreta zerbitzuekin.

- [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) / 943 780 411 (udaleko Berdintasun saila)
- [ainhoa@onati.eus](mailto:ainhoa@onati.eus) / 943 037 700 (udaleko Gizarte Zerbitzuak)
- 900 840 111 (Eusko Jaurlaritza)
- Oñatiko udaltzaingoa: 943 081 000 (092)
- Larrialdiak 112

 **Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com)

 **PINTURAS URBIA MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## Bizikleta aparkalekuak hornitu eta instalatzeko lanak esleitu ditu udalak

Leongo *Globalia Urbanismo Integral* enpresari esleitu dizkio udalak bizikletentzako aparkalekuak hornitu eta instalatzeko lanak, ia 35.000 eurotan. Urtarrilaren 22an sinatu zuten akordioa, eta 8 asteko epea finkatuko da lanak burutzeko. Argazkikoa bezalako aparkalekuak kokatuko dituzte Elkar Hezi (Santa Marina), Ikastola (azoka ondoan) eta Zuazola-Larraña institutuko patioan. Altzairuzko egiturak izango dira, 6,5 eta 8,5 metro artekoak, alboko itxiturarik gabe.

## Hutsik dauden industria pabilioien inguruko azterketa egin du udalak



Udaletxean kontsulta daiteke hutsik dauden pabilioien inguruko datu basea

2018ko Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuan herritarrek lehenetsitako proposamenetako bat izan zen, herrian hutsik dauden pabilioien inbentarioa egitea, etorkizunerako alternatibak lantzeko.

Eskari horri erantzunez, udaleko Hirigintza departamentuak 2020an zehar egin zuen azterlana, industria eremuetan hutsik dauden partzelak zerrendatuz eta okupatu gabe dauden pabilioiak identifikatuz. Egindako azterketaren arabera, **134** industria eraikin daude guztira, eta **%18** daude hutsik. Eraikinen azalerari erreparatuz, berriz, portzentajea txikiagoa da; **349.959m<sup>2</sup>** daude eraikita, eta **12.273m<sup>2</sup>** daude hutsik (**%3,5**).

Datu horiek guztiak eta gehiago jaso ditu azterketak, eta datu base bat prestatu dute, kontsultarako baliabideak sortuz. Oñatiko mapan ere kokatu dituzte okupatuta eta hutsik dauden pabilioiak. Udaletxean kontsulta daiteke informazio guztia.

## 110.000 eurotik gora ostalarientzat

**DIRULAGUNTZAK** Covid-19ari aurre egiteko asmoz, ostalaritzako establezimenduen itxiera agindu zuen Eusko Jaurlaritzak azaroan, eta horren aurrean ez ohiko bi dirulaguntza lerro jarri zituen abian Udalak, bi helbururekin: ostalaritza sektoreko enpleguari eustea, eta Covid-19ari aurre egiteko establezimenduetan egin beharreko inbertsioei aurre egiten laguntzea. Lehenengo lerroari dagokionez, 45 eskaera jaso dira, denak onartu dira, eta, orotara, 87.000 euro banatu ditu udalak (1.600 eta 2.400 euro artean jaso ditu establezimendu bakoitzak, langile kopuruaren arabera); bigarren lerroari dagokionez, 18 establezimenduk egin dute eskaera, guztiak onartu dira, eta 26.232 euro banatu dira, kanpoaldeko terrazak egokitzeko, eta segurtasun nahiz osasun protokoloetara egokitzeko.

## Berdintasuneko dirulaguntzak deitu ditu udalak

**DEIALDIA** Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren alde lanean diharduten elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita 30 eguneko epea egongo da eskabideak aurkezteko. Emakumeen ahaldundutza, berdintasunaren aldeko elkartegintza eta formazio programak, edota indarkeriaren prebentziora zuzendutako jarduerak jaso ahal izango dute dirulaguntza, besteak beste.

## Elikadura sistemaren karakterizazioa aztergai

**INGURUMEN BEKA** Oñatiko elikadura sistemaren karakterizazioa: *oinarri sozial eta fisikoaren definizioa* da Ingurumen beka jasotzeko epaimahaiak hautatu duen egitasmoa. Deialdira aurkeztutako lau proiektuen artean puntuazio altuena lortu du. Zer nolako karakterizazioa eman dakioko Oñatiko elikadura sistemari eta zein osagai behar ditu ekoizpenak eta kontsumoak kate eraginkorra osa dezaten? Bi galdera nagusi horien bueltan egingo da azterlana. Helburu nagusia da, Oñatiko elikadura sistema aztertu eta sistema hau agroekologiaren bidean indartzeko urrats berriak proposatzea. 2022ko abenduaren 31rako aurkeztu beharko dute ikerketa lana.

## Altxatutako hiru zebra bide egokitu ditu udalak

**HIRIGINTZA** Bizilagunen eskaerei erantzunez, hiru zebra bide altxatu egokitu ditu udalak herriko guneez berdinetan: Otadui zuhaitzian, Kurtze bide kalean, eta Berezaoko Natra enpresa parean. Ibilgailuak abiadura handian pasatzeagatik puntu arriskutsu izatea edota oinezkoek errepidea zeharkatzeko zebra biderik gertu ez egotea kontuan hartu da hiru gunee horiek aukeratzeko. ORSA enpresa aritu da lanak egiten. Zebra bideak ez ezik, euri-urak bideratzeko lanak eta dagokion lurreko seinaleztatzea ere egin du, 16.766 euroko (+BEZ) aurrekontuarekin.





## 2021ean PLASTIKOA ATERATZEKO EGUNAK

- URTARRILAK 26
- OTSAILAK 23
- MARTXOAK 23
- MAIATZAK 25
- UZTAILAK 27
- IRAILAK 28
- URRIAK 26
- AZAROAK 23
- ABENDUAK 28

### BILKETA LEKUAK

- Zañartu (Zuazola ingurua)
- Murgialdai (Asentzio ermita)
- Olabarrieta (BUS geltokia)
- Musika Eskola gainaldea

## Baserri ingurunean erabilitako 53.000 kilo plastiko batzen ditu urtero Landa Garapenak

**D**ebagoieneko Landa Garapena elkarteak 2005ean ekin zion baserri ingurunean erabiltzen diren plastikoak batzeari, eta urtean 53 tona inguru jasotzen ditu eskualde mailan.

Belar bolak egiteko erabiltzen den plastikoa izaten da ugariena, baina, horrez gain, lurra edo siloa estaltzeko eta negutegietan erabiltzen den plastikoa ere batzen da.

Landa Garapena elkarteak kontratatutako Ibiri Garraioak enpresak egiten du bilketa lana. Honek Aizarnazabalgo Recuperados Isasi-ra eramaten du plastikoa, eta bertan garbitu eta tolestu ostean, birziklatzera eramaten da Extremadurako lantegi batera.

### 9 BILKETA URTEAN

Urtean bederatzita bilketa egun izaten dira, eta baserritarrek bezperan atera behar izaten dituzte plastikoak, arratsalde, horretarako finkatutako bilketa puntuetara.

Oñatiko kasuan, lau dira bilketa puntuak: Zañartu (Zuazola ingurua), Murgialdai



**Plastikoak ahalik eta  
lur gutxienarekin eta  
txukun atera behar  
direla gogoratzten  
du Landa Garapena  
elkarteak**

(Asentzio ermita), Olabarrieta (BUS geltokia) eta Larraña (Musika Eskola gainaldea).

### GARBI ETA TXUKUN

Garrantzitsua da plastikoa ahalik eta garbien ateratzea. Arauak gero eta zorrotzagoak dira eta, beraz, Landa Garapena elkarteak ahalegina eskatzen die baserritarrei plastikoa ahalik eta lur gutxienarekin ateratzeko, eta ahal bada lotuta, batez ere haize egunetan. Sokak zaku batean ondo bilduta atera behar dira, bestela ez dira jasoko.

Edozein intzidentzia edo zalantza argitzeko, edo bilketa berezi bat eskatu behar izanez gero, 943762547 zenbakira deitu behar da.

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

# Ikastetxe inguruetako espazioak pandemia egoerara egokitzeko behin betiko neurriak martxan dira

Ikasturte amaiera bitartean mantenduko dira, jende pilaketak saihestu eta kutsatze arriskua gutxitzeko helburuarekin



Elkar Hezi ikastetxean errepidea mozteko egokitu duten hesi berria

**ELKAR HEZI IKASTETXEA** ERREPIDEA MOZTEKO ORDUTEGIA (astelenetik ostiralera)

• GOIZEZ	
ERREPIDEA MOZTU	ERREPIDEA ZABALDU
8:25	8:55
12:10	12:30

• ARRATSALDEZ	
ERREPIDEA MOZTU	ERREPIDEA ZABALDU
14:15	14:35
16:25	16:45



**TXANTXIKU IKASTOLA** Kiroldedia eraberritzeko obren testuinguruan, aparkaleku-banda oinezkoentzako eta egoteko gune bihurtu da, zabalgune handituz

Covid-19ari aurre egiteko hartu beharreko prebentzio-neurriak direla eta, ikastetxeen inguruko espazio publikoek aldaketak izan dituzte ikasturte honetan. Hasiera batean hartutako neurriak doituz joan da Udala, ikastetxeekin elkarlanean, eta, honenbestez, ikasturtea amaitu arteko behin betiko egokitzapenak martxan jarri dira.

Covid-19ak ekarri digun ikaspen garrantzitsu bat egoera ezberdinetara egokitzen ikasi beharra dugula da. Kutsatzea saihesteko prebentzio-neurri eraginkorrenetako bat urrutze fisikoa bermatzea da, pertsonen arteko distantzia mantentzea, eta ikastetxeen inguruko espazio publikoan moldaketak egin dira neurri hau era seguruan bermatzeko.

Ikasleen sarrera-irteera orduak mailakatu egin dira eta momentu horietan pilaketarik ez izateko eta distantziak mantentzeko beharrezkoa izan da espazio publikoa egokitzea. Helburu nagusia ikasturtea segurtasun baldintza gorenekin garatzea da, kutsatzeak sahiestea eta jardun akademiko presentziala bermatzea.

Ikastetxe bakoitzaren ezau-garriak, ingurunearen ezau-garriak eta hezkuntza-komunitateak eta herritarrek planteatutako iritziak hartu dira kontuan neurriak adosteko garaian. Ingurune bakoitzak bere berezitasunak ditu eta gauzatu diren esku-hartzeak





**URGAIN-ERREKALDE** APARKATZEKO DEBEKUA: Ikastetxe aurreko aparkalekuan autoak aparkatzea debekatuta dago **astelehenetik ostiralera, 8:00-17:15** orduetegian. Orduetegi horretatik kanpo (17:15-8:00) eta asteburuetan aparkatzea baimentzen da.

ere anitzak dira, kasu bakoitzari egokitzen dira eta.

Ikasturte hasieran ezarri ziren neurrien etengabeko jarraipena eta balorazioa egin dute udalak eta ikastetxeek, eta, honenbestez, ikasturte amaiera arteko behin betiko neurriak adostu eta martxan jarri dituzte otsailaren 1ean.

#### **ELKAR HEZI IKASTETXEA**

Arantzazuko Ama kaleko eraikinean espazio publikoa antolatzeke bi aukera probatu dira orain arte. Adostasun handiena lortu duen aukera -eta haurrentzat seguruena- tarte batean zirkulazioa eten eta irabazitako espazioa sarrera-irteerak antolatzeke erabiltzea izan da. Behin-behineko babes hesi batzuen bidez zirkulazioa eten egin da, baina neurri honek astean zehar errepidea guztiz ixtea zekarren.

Itxitura berezi batzuk jarri dira ikastetxearen inguruan. Itxitura hauen bitartez adostutako orduetegi zehatz baten, haurren sarrera-irteera orduetan hain zuzen, errepidea itxiko da, baina orduetegi horretatik kanpo errepidea zabalik egongo da. Horrela, haurren segurtasuna bermatuko da ibilgailuen zirkulazioa ahal den gutxien kaltetuz. Neurri hau atzeratu beharra egon da. Udalaren borondatea da ahalik eta azkarren indarrean

jarzea.

#### **URGAIN-ERREKALDE**

Sarrera irteeretan pilaketak saihesteko neurrien artean ikastetxearen sarrera nagusian dagoen parkina ikasleen sarrera irteeratan segurtasun-distantzia mantentzeko baliabide bezala erabiltzea adostu zen. Proban egon den garaian aparkalekua itxita egon da kotxeentzat astelehenetik ostiralera.

Auzotarren eskaerei eran-

tzunez, aparkalekuaren itxiera-ordutegia egokitu egin da:

Astelehenetik ostiralera 8:00-17:15 orduetegian ikastetxe aurreko aparkalekuan autoak aparkatzea debekatuta dago. Orduetegi horretatik kanpo, 17:15-8:00 bitartean eta asteburuetan autoak aparkatzea baimentzen da. Aparkaleku sarreran aipatutako debekuaren berri ematen duten seinaleak jarri dira.

#### **TXANTXIKU IKASTOLA**

HH-LH eraikinaren aurreko aparkalekua oinezkoen eremu bihurtu zen hasiera batean, segurtasun-hesiak jarri. Hartutako behin-behineko neurrien balorazio positiboa egin ondoren, eta kiroldegia eraberritzeko obren testuinguruan, aparkaleku-banda oinezkoentzako eta egoteko gune bihurtzeko proiektua gauzatu da, zabalgunea bihurtuz.

Egin diren egokitzapenek oñatiar guztiengan izango dute eragina neurri batean. Guztion osasunaren mesedetan izango direlakoan daude ikastetxeak eta Udala. Guztion inplikazioa, elkarlana eta ardura ezinbestekoak izango dira. ■

## **BAGABILTZ-ESKOLAKO BIDEA PROIEKTUA**

2018az geroztik, Oñatiko Bagabiltz-Eskolako Bidea egitasmoaren barruan, Hirigintza Taktikozko jarduerak egin dira urtero ikastetxeen inguruan. Helburua izan da espazioaren erabilerari buruz eta espazio hori eraldatzeko aukerei buruz hausnartzea, ikastetxe seguruagoak eta osasuntsuagoak lortzeko, kutsadura eta zarata gutxiagorekin, ikastetxearen ingurunea egoki antolatzeak haurren autonomia eta mugitzeko modu aktiboak sustatzen dituelako.

lazitik hona, COVID-19a iristearekin batera, eskolako sarrera-irteeretako jende pilaketak saihestera zuzendutako neurriak aztertu, baloratu eta martxan jarri ditu udalak, ikastetxeekin elkarlanean.

2021 denboraldiko bizikletak!

**Oñabike**

BIZIKLETAK - PATINETEAK - KIROL ERIPAZIOAK

oñabike.com Oñatui 25, Oñati Tel.: 943 78 05 65

## Batzokian egindako pintadak salatu ditu EAJK



'Lotu txakurrak' eta 'Mozalik ez, Faxistak' zioten pintadak agertu ziren urtarrilaren 23an Oñati eta Arrasateko batzokietan, eta Gipuzkoako Buru Batzarrak idatzia plazaratu du ekintza horiek arbuatuz. Bakean bizi nahi duen herri honetan era horretako jokabideak erabat lekuz kanpo daudela adierazi du EAJK. Zentzu horretan, bizikidetzan nahasten duten jokaerak eta gertaerak desagerrarazteko euskal gizartearen gehiengoak dauzkan irmotasun eta pazientzia demokratikoak beharrezkoak direla gaineratu dute jeltzaleek.



## 'elkarrekin.ehbildu.eus' plataformaren bidez jorratuko dituzte EH Bilduren II. kongresuko edukiak

Hauteskunde batzuetara lehen aldiz aurkeztu zenetik 10 urte igaro diren honetan, EH Bilduk bere II. Kongresua burutuko du ikasturtean zehar, herri honentzako ezkerreko alternatiba gisa sendotu, eskaintza politikoa eguneratu eta komunitate politiko gisa hazten jarraitzeko helburuarekin.

Oñati mailan, urtarrilaren 30ean egitekoa zen lehen herri batzarra, baina bizi dugun egoeraren ondorioz, batzarra bertan behera utzi eta planteamendua aldatzea erabaki dute. Hala, **elkarrekin.ehbildu.eus** plataforma sortu dute, eta kanal horren bidez banatuko dituzte batzarrean lantzeko zituzten edukiak (ponentziak, arautegia, egutegia...).

Beraz, prozesuan parte hartzeko interesa duten herritar guztiak plataforma horretan izena ematera animatzen ditu EH Bilduk, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta aberatsagoa izango baita prozesua. Edozein arazo edo zalantza argitu nahi izanez gero, [onati@ehbildu.eus](mailto:onati@ehbildu.eus) helbidera idatzi.

Ekainera bitartean hiru herri batzar egitea zen hasierako asmoa, eta posible den heinean, hurrengoak modu presentzialesan egiten saiatuko dira.

Afiliazio kanpaina bat ere jarri du abian Oñatiko EH Bilduk, *Bilkide* kopurua handitzeko helburuarekin, baina aurrerago emango dituzte xehetasunak. "Kudeaketarako eta gobernatzeko gaitasuna ez ezik, herri honentzat ezkerreko alternatiba sendo bat garela erakutsi dugu" adierazi dute koalizioko kideek. "Gero eta gehiagoren ilusioa piztu duen egitasmoa izan da EH Bildurena, eta bide horretatik jarraitu nahi dugu, gero eta komunitate anitzagoa eta zabalagoa osatuz".



**HAMAR GAI, HAMAIKA BERBA**

## Fluxu migratorioak eta Euskal Herriaren erronkak kultura anitzeko testuinguruan

**HITZALDIA** Oñatiko EH Bilduk antolatutako *Hamar Gai, Hamaika Berba* hitzaldi zikloaren baitan, fluxu migratorioen aurrean Euskal Herriak dituen erronkak izango dira aztergai. **Maggie Bullenek** kulturartekotasunaren korapiloak antropologia feministaren ikuspuntutik aztertuko ditu; **Imanol Esnaolak** Euskal Herriko XXI. mendeko migrazioa(k) izango du hizpide; eta **Andoni Olaraigak** herritartasunaren korapiloak jorratuko ditu.

**Otsailaren 17an**, asteazkena, izango da hitzaldia, Santa Ana aretoan, 18:30etan. Sarrera doan da, baina aurrez hartzea gomendatzen da, udalaren plataforma digitaallean edo Txokolateixan.

## Toledoko Itunaren gomendioak salatzen manifestazioa egingo da otsailaren 13an

**PENTSIOAK** Manifestazioak Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egitea zen hasierako asmoa, baina udalerriko konfinamendu perimetrala dela-eta, mobilizazioak herriz herri egitea erabaki dute. Toledoko Itunak pentsiodunen eskariak aintzat hartu ez izana salatzeaz gain, azken erreformak baliogabetzea eta 1080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatuko dute.





## Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Udalak ikasleen matrikulazio-kostuak arindu eta euskaltegiaren beraren matrikulazioa bultzatzeko, matrikula baten zozketa egin ohi du euskaltegian ikasturte osoko matrikula egin duten ikasleen artean.

2020-21eko sariduna **C1 mailako Miren Arbil Urteaga Bikuña** izan da. Argazkian dago bera saria jasotzen (273,86€) Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik.

## Ingo Xonau! proiektua ikastetxeetara iritsi da

Oñatiko noka (emakumezkoen hitanoa) biziberritzeko asmoz sortu zen **Ingo Xonau!** proiektuak urrats berria eman du. Iazko azaroan *Oñatiko hika poltsikaran liburuxka* plazaratu zuten, hitanoari buruzko oinarriko informazioa eta gehien erabiltzen diren aditzekin, eta orain material hori herriko ikastetxeetan banatu dute, ikasleekin hitanoa lantzeko. Txantxiku ikastolako, Elkar Heziko eta Zuazola Institutuko DBH-4 eta Batxilergoko ikasleekin landuko dute materiala, asteen behin, euskara orduetan. Hitanoa praktikatzea da helburua eta, horretarako, hainbat ariketa ere proposatu dizkiete **Ingo Xonau!** taldeko kideek, ahozko praktikak egin ditzaten. Hainbat herritarren testigantzekin grabatutako dokumentala ere erakutsiko diete ikasleei, hitanoaren erabilera nolakoa izan den eta galeraren zergatiak zeintzuk izan daitezkeen aztertzeko.



DBH-4 eta Batxilergoko ikasleen artean banatu dute materiala, hitanoa lantzeko

## Oñatiko Udala Grant bekaren deialdia egin dute

*Oñatiko Udala Grant* izeneko bekaren deialdia egin dute udalak eta Lege Soziologia institutuak. Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketa proiektuak sustatzea da helburua. Bekak 4.000 euroko dotazioa du, eta eskatzaileak Oñatiko Lege Soziologia Masterreko ikasle izandakoak edo une honetan direnak izan daitezke, edota Lege Soziologia institutuarekin harreman estua duten ikerlariak. Eskerak aurkezteko azken eguna otsailaren 26a izango da.

## Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉ [kontsumojasangarriaonati@tutanota.com](mailto:kontsumojasangarriaonati@tutanota.com)

Kontsumo jasangarri taldea

## Hileko proposamenak Otsaila



### Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Armairuan duzun arropatik, erabiltzen ez duzuna beste batek aprobetxatzeko aukera ugari daude herrian (kontenedore zuria, Hermasoloña bezalako taldeak...). Daukazu guztia behar duzu?.



### Kultura jasangarriaren txokoa:

Minimalismo (Élodie-Joy Jaubert, Edit. Amat). Liburutegian aurkitu dezakezun liburu honek soberan duzun hori guztia alde batera uzten lagunduko dizu.



### Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Galtza bakero batzuk ekoizteko 8000 litro ur kontsumitzen dira. Ba ahal zenekien? (<https://www.elagoradiario.com/en-profundidad/a-fondo/vaqueros-devoradores-de-agua/amp/>)



### Ekimen jasangarri bat:

Arroparen kontsumoaren aztarna ekologikoa aztertzen dituzten ekintza ugari martxan jarri dira. Hemen informazioa aurkitu dezakezu: Siguiendo el hilo blanco. <https://www.gabinetepodcast.com/indexe1-t3>.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Txantxikuei, esker onez KIKUren partez

**Belen Maiztegi Arrue**

**B**ona 1991tik 2020ra arte nere bizitza tarte honetan bezero eta lagun bihurtu zareten guztiei; zuen fideltasuna eta konplizadiaz erakutsi dozueinoi, baita, zoritxarrez, joandakoei; eta bereziki, orain debekatuta dauzen muxu eta besarkada emutera etorri zareten guztioi.

Bihotz-bihotzetik mila esker nere txiki eta nagusiei.

## Nahikoa da! Utzi gazteak pakean!

**Inma Martin eta Enaitz Ibabe, Ernaiko kideak**

**A**zkenaldian gazteok sarri entzun dugu gu Agarela pandemiaren bilakaera okerraren errudunak.

Albiste faltsuak zabaltzen ari dira kudeaketa eskasa estali nahian; esate baterako, Araban zabaldu zuten Oñatin egon ez zen litroak egite hura. Gainera, telebistan behin eta berriz ibili dira gazteok kriminalizat hartu nahian komeni zaizkien irudiak erakusten eta komeni ez zaizkienak baztertzen; adibide entzutetsuena Donostiako Alde Zaharrekoa izan da, zeresan handia eman duen arren, ezagutzen al dugu nork apurtu zion gazteari masailezurra? Zenbatetan entzun duzue Donostian kargak egon direla? Zenbatetan entzun duzue telebistan legez kanpoko txertaketan EAJko kideak dardela?

Iñigo Urkullu jauna atera da Donostian erabilitako biolentzia gaitzeztera eta Ertzaintzaren "lana" goraiatzera. Zeinen biolentzia jotzen du zigorgarrizat? Zergatik legezkoztat jotzen du agintarien bortxakeria eta injustiziak eragiten duena kriminalizat hartu?

### **EZ izan ertzain, izan artzain !!!**

ETBk inoiz ez dio eskaini gazte prekaritateari lekurik, baina azkenaldian jo eta su dabil kaleko edanari buruz hizketan. Hor ikusten dira batzuen lehentasunak.

Pandemiari aurre egiteko hartu diren neurriak kontrol sozialean eta polizia indartzean oinarritu dira, osasungintzan dirua inbertitu beharrean.

### **EZ izan ertzain, izan erizain !!!**

## SARS-Cov2/COVID-19aren inguruko gogoetak (alkateari bidalitako gutunaren laburpena)

**Steve Carr eta Nieves García**

**H**erriar asko gaude pentsamendu kritikoarekin konprometitu eta denbora daramagu informazio asko aztertzen; hemen, espazio-arrazoiengatik, zati txiki bat baino ez dugu aurkeztuko.

**Alderdi juridikoari** dagokionez, nabarmendu Europako hainbat kasu, hala nola Bosnia eta Herzegovinako auzitegiak zirkulatzeko askatasuna etetea inkonstituzioanaltzat jo zuen erabakia. Espainian ere inkonstituzionala da zirkulazioa eta biltzeko eskubidea mugatzea alarma-egoeran.

Austrian, Konstituzio Auzitegiak ebatzi zuen eskoletan eta eskolaz kanpoko jardueretan maskarak nahitaez erabiltzea legez kanpoko zela. Portugalen, berriz, Auzitegi Gorenak ebatzi zuen PCR testak ez direla egokiak bere xederako.

**Alderdi sanitarioari** dagokionez, ohiko komunikabideen bidez iristen zaizkigun mezuetatik aldutzen diren publikazio zientifikoak aurkitu ditugu: S.Bhakti, M.Yeadon, J.Ioannidis, W.Wodarg, M.Kulldorff eta S.Guptare analisiak edo Z.Zelenko, S.Gold, K.Mullisen protokoloak eta M.J.Martinezaren aurkezpenak.

Ikerketa ofizialak ere aztertu ditugu, hala nola Corman-Drostenen protokoloa, PCR proben erabilera unibertsala eragin duena, eta zientzialari askok identifikatu dituzten akatsak dituen, Euroserveillance aldizkarian argitaratuak.

OMEk berak Ioannidis irakaslearen azterketa onartu zuen, SARS-Co2-aren irismena aurreikusteko **Fergusonen lehen ereduak akats larriak zituztela** eta infekzioak eragin zitzaizkeen




Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)





## Gailurreko aberastasuna

 Han goian ez zegoen ezer, esku hutsik ekin zenion bueltako bideari, arrakasta usainez perfumatutako zaurientzako erruki gutuna, eta hori zen zure aberastasuna.



JON GARATE

heriotzen kopurua izugarri puztu zutela frogatu zuena. Eredu horien arabera, justifikatu dituzte mundu osoko gobernuak hartutako neurriak, ebaluatu ere egin gabe osasun-mailan izan dezaketen inpaktua: estres psikologikoa, isolamendua, maskaren erabilera, ariketa faltak..

Alkateak bere gutunean eskatzen duen bezala, egoera hau aldatzeko ahal duguna egiteko prest egon behar dugu. Horregatik, gure ordezkariak eskatzen diegu, ofizialetik haratago joatea eta ahotsa altxatzea, askok ditugun galderak egiteko:

**-Zerk egiten du posible garai guztietako lobby politiko-ekonomiko handienak "agintariek" negoziatzea txertaketa masiboa inposatzeko, aldi berean farmazeutikak erantzukizunez absolbituz txertoak eragindako edozein kalteengatik?**

**-Nolatan Espainian mediku espezialista bakar batek ere ez ditu ikusi ustezko 'txertoak' emergentziaz erabiltzeko baimenena eman duten 'proben' jatorrizko datuak?**

Gaur egun, ez dago erantzunik; izan ere, datu horiek kontrolatzen dituzten enpresek ez dituzte argitaratu, eta ez da nahikoa denbora igaro proba horiei "parekoen ebaluazioa" egin ahal izateko.

Ados gaude egoera hau ez dela erraza gutako inorentzat, baina gero eta hobeto informatuta gaude, indartsuagoak gara, elkar zaintzen dugu eta gaur egun beldur gutxiago sentitzen dugu. Gure agintari hurbileneak gauza bera egitea nahi dugu.

Informazio gehiago: [osasunaetaeskubideak-debagoiena@protonmail.com](mailto:osasunaetaeskubideak-debagoiena@protonmail.com)

## Demokrazia eskuhartzailea vs demokrazia ordezkagarria

Enrike Gaztañaga Azpiazu

**A**rrikutz koba turismorako atondu zutenean eta bertara igotzeko bide berria zabaldu zutenean bihozmina izan nuen, ez ekintzagatik zutenean, egokia iruditzen bait zait proiektua, baizik eta bidea nola egin zuten ikusi eta gero. Nere ustetan, han zegoen errekatxoa, ehun urtetik gorako zuhaitzak,... begirunez eta adeitasunez hartu zitezkeelako.

Araotz inguruan, berriro ere, orain dala gutxi, bihozmina izan dut, Madinarako bidean egin dituzten aparkaleku berriekin. Ez nago progresoarekin kontra, baina agian eskabadorak sartu ordez, atxurrekin egin beharreko obra zan, ez nago jendea etortzearen kontra, baina herribus zerbitzua egonda eta kobazuloaren aparkalekua izanda, Araotzeko bidean kotxe gehiago sartzea ez dakit egokia den. Azkenean bertakoak, egoiliarak bakarrik joan ahal izango dira, kostan egiten den bezala eta eskubideen urradura bat gehiago jasan behar izango degu.

Eta gaiari lotuta, Euskal Herri mailan ez litzateke egokia izango, Suizan egiten den bezala, gai eta proiektu ezberdinei buruzko informazio eta heziketa zabalagoa ematea eta erreferendum edo bozketa gehiago egitea, demokrazia eskuhartzaile handiago bat bultzatuz eta ez bozka ematen dudarekin, gai denetan begiak itxita eskutik joatea?



## Presoen aldeko zozketan saritua

Herriko presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan 3917 zenbakia atera zen saritua (ordezkoa 4268). Sorkunde Ugartek zeukan txartel hori eta berak jaso zuen saria, gabon saski zoragarria, goiko argazkian ikusten den moduan.

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

# TXALOKA UDAL LUDOTEKAN URTE BERRIA GOGOZ, ILUSIOZ ETA PROIEKTUZ BETETA

Urrian berriro atek ireki genituen eta pandemia honek sortzen dituen traba guztien gainetik, beharrezko babes neurri guztiak hartuta, honezkero ludotekako familia egonkortuta eta eroso gaude.

Horretaz gain, Txaloka Ludoteka birsortzen gabiltzan honetan, esku artean proiektu ezberdinak ditugula aipatu beharrean gaude. Batetik, urteroko ekintzen parte den Ludoteka ibiltaria izango dugu berriz, eta bestetik berritzaileak izango diren beste bi ekimen ditugu martxan; kanpo espazioa gureganatzeko Txalokako ortu-lorategiaren proiektua, eta Mirari Sagarzazu artistarekin batera "Ludoteka edertzen" parte hartze prozesua. Ikusten duzuen moduan ez gaude geldirik!

Ludoteka Ibiltaria otsailean hasiko dugu, eta Apirilera bitartean hilero larunbat goiz batez herriko txoko ezberdinetan egongo gara ekintza bereziak garatuz. Ekimen honen helburua Ludoteka kalera ateratzea eta herritarrek ludotekara hurbiltzea da, herriko txoko ezberdinetan, asteburuetan haur zein familiek tarte goxo bat igarotzeko abagunea izatea. Ondorengo asteetan kartel ofiziala aterako dugu baina apuntatu datak: otsailaren 20a, martxoaren 20a, apirilaren 17a eta maiatzaren 8a. Primeran pasatuko dugu!

Bestalde, berritzaileak diren ekintzen artean Txalokako ortu-lorategia daukagu batetik. Kanpo espazioa gureganatzeko Ludoteka osteko espazioa txukundu eta laster batean gure ortu-lorategia lantzen hasiko gara horretarako propio sortuko dugun gune baten. Bertan naturarekin harremana sakondu, ikasi, eskuak zikindu, sortzailetasuna garatu eta askoz gauza gehiago egiteko asmoz katuska eta aitzurrak prestatzen gabiltza.

Bestetik, jakingo duzuen bezala, iaz Ludoteka barrutik erabat berritu genuen, eta espazio hori gozotzeko eta gureganatzeko helburuarekin, aurreko prozesuari jarraipena emango diogu eta bertan hiru mural burutu nahi ditugu. Horretarako, gurean ere protagonista diren txikiek zer esana izango dute, eta nola ez beraien sortzailetasunetik abiatuko gara. Lehen aipatutako Mirari Sagarzazuren laguntzarekin parte hartze saioak egingo ditugu, bai diseinua garatzeko eta baita gero murala margotzeko ere. Deseatzen gaude prozesua abiatzeko!

Jakina, ez gara egunero horren lanpetuta ibiliko! Jolas libreari beti bezala, tarte eta garrantzia handia emango diogu. Beraz, animatu! Badakizu non gauden; hurbildu Ludotekara eta gozatu gurekin batera!



**AGENDA** 2021.02.6 eta 7 Topalekuan, Laser Combat. | 2021.02.13 Gaztelekuan, ikuskizuna. | 2021.02.16 Gaztelekuan, Inauterietako ekintza bereziak. | 2021.02.20 goizean, Ludoteka ibiltaria Herriko enparantzan. | 2021.02.20 Gaztelekuan kontzertua, La excavadora. | 2021.02.21 kuboan, LH4ko ikasleen eskutik Goazeneko 2 antzerki + eskulanak.



# Ostalaritzaren errua?

Egilea: Urko Egaña | Doinua: Beste bateko inularretan



**7.** Goizalderako zenbat zarata egon ezin eta traba bizilagun ta auzotarrentzat iratzargailu gisara! Etxe azpiko jolgorioa ta sortzen den "barrikada"... Gau-paserorik bada errua ostalaritzarena da.

**1.** Mugatu nahi dut gizartearen ohitura batzuetara, arazoeri konponbide bat eman beharrean gara! Ostalariei luzatzen zaie lehenbiziko begirada! Dirudienez errua beti ostalaritzarena da.

**3.** Alkoholak ere eragiten du hainbat nahigabe ta traba... Batzuk etxera iristen dira balantzaren nahietara, ta gero bertan nolako pena ta nolako lurrikara. Mozkorrik bada horren errua ostalaritzarena da.

**5.** Hainbat faktorek eragiren du zenbaiten neuronetara, jendea jotzen, gauzak apurtuz... doazenak non-nahitara. Ta iskanbila dihoa hoiek doazen tokietara. Borrokaldirik bada errua ostalaritzarena da.

**8.** Azken urteko pandemiaren norantzen hankapetara ostalaritza lokalak ixten dabiltz hona eta hara! Diru galera beldurgarriak ta laguntza gutxi, hara! Kobida hedatzen bada errua ostalaritzarena da.

**2.** Bada jendea tragaperretan denbora libre gisara diru pila bat husten duena tragaperren kutxetara. Kasu batzutan diru galerak heltzen dira etxeetara. Ludopatarik bada errua ostalaritzarena da.

**4.** Zenbat desgrazi heldu ote den zenbait familietara droga zikina sartu delako zenbaitzuren zainetara. Zulo beltzetik nekez atera ahal gaitezke argitara. Drogazalerik bada errua ostalaritzarena da.


**6.** Emakumeen eskubideen kontrako jarduerara mugatu ohi da zenbaitzako jai giro bateko gaba. Zenbat eraso basati paira ote diren orotara... Hau gertatzean errua ere ostalaritzarena da.

**9.** Hausnar dezagun, pentsa dezagun ta arinkeriak laga! Gizartearen erru denak ez bota ostalaritzara! Beste zerbaitek bultzatzen gaitu egoera hauetara. Ostalariei egotzi arren errua guztiona da.

## PANDEMIA ETA KONTROL SOZIALA



**P**andemiak gogor jotzen duen garai hauetan, ukazina da osasungintzak eta ikerketak izan beharreko zentralitatea. Hala ere, auzia osasun krisitik askoz harago doa, hurrengo urteetako gizartearen berregituraketa fasean kokatzen baikara. Hartutako neurri guztiak gizarte eredu berriaren oinarriak finkatzera begira hartu dira. Baliabideak gizartearen ongizaterako bideratu beharrean, kontrol sozialerako mekanismoak areagotzea lehenetsi da, pobrezian eta askatasun ezan oinarritutako gizartearen sakonduz.



**Roberto Posada**  
GKSko (Gazte Koordinakunde Sozialista) kideen izenean

Kontrol sozialak espresio desberdinak hartzen ditu, hala nola, gizarteko sektore eta problematika jakin batzuekiko kriminalizazio kanpaina politiko, juridiko eta mediatikoak, eskubide eta askatasun politikoen urraketak, diziplinamendua, kultura alienantea zein indar polizialen inpunitatea eta erreprezioaren gorakada. Horiek guztiek, pandemiari aurre egiteko neurri eraginkor eta beharrezko bezala saldu arren, sumisio, diziplina eta obediencianoinarritutako jendartea dute helburu.

Ofentsiba honetan funtsezkoa da hedabideen papera. Hartutako neurri arbitrarioak eta polizia estatua legitimatu eta normalizatzeaz gain, orokorrean iritzi publikoan eragiteko gaitasuna dute, pandemiaren gaineko ardurak guztiz indibidualizatuz eta

langile klasearen barnean etsaitasunak sortuz. Zehazki, azken asteetan komunikabide ezberdinetako telesail, egunkari zein iragarkietan figura polizialaren presentzia areagotu eta normalizatzeke joera garbia ikusi daiteke.

Guk argi daukagu hartzen ari diren neurriak osasun krisiari aurre egiteko urrun, kontrol sozialerako mekanismoak direla. Langileria egunerokotasuna baldintzatu eta sumisiora bideratzeko prozesu honetan, ezinbestekoa zaigu egoera salatu eta neurri murriztaileen erroan dagoena mahaigaineratzea. Gainera, eskubide eta askatasun unibertsalak bermatzeko, kontrol sozialeko mekanismo hauei aurre egitea dagokigu. Indibidualismora bideratzen gaituzten bitartean, guk antolakuntzaz erantzungo dugu. ■

# Oñatiko gazteluak eta balizkoak

## Gipuzkoako gazteluen errolda eguneratua argitaratu du Antton Arrietak

Ia 30 urte darama Antton Arrieta Valverdek Euskal Herriko gazteluak ikertzen. 2003. urtean *Euskal Herriko 101 gaztelu* izeneko liburua argitaratu zuen, eta 2006an, *Gipuzkoako gazteluak* eman zuen argitara. Bizkaia eta Arabako gazteluei buruzko liburu bana ere idatziak ditu.

2006ko argitalpenean, Gipuzkoan egon ziren 12 gazteluren berri ematen zuen Arrietak, baina zerrenda hori eguneratu egin du orain eta, gutxienez, 20 bazirela egiaztatu ahal izan du. Datozen urteetan zerrenda hori handituko delakoan dago Arrieta; beste balizko dozena bat gazteluren aztarnak aurkitu dituelako, baina froga gehiagoren bila dabil oraindik hipotesiak baieztatzeko.

### OÑATIKO GAZTELUAK ETA BALIZKOAK

Arrietak plazaratu berri duen *Gipuzkoako gazteluak* liburuan jasotzen diren hogeitaz gazteluetatik bi Oñatin daude: *Artia* eta *Urropea*, azken hau Aretxabaletako mugan. Biak ala biak udako larreekin lotura zuten eraikinak zirela uste du ikerlariak, *Artiak* meatzaritzarekin ere izan bazezakeen ere.


Dena den, Oñatiko gazteluen errolda luzatzeko aukera dagoela uste du Arrietak, abeltzaintzari (*Gaztelusakon?*) edo eskualdeko jauntxoei eta borrokei (*Zumeltzegi?* *Gazteluondo?*, *Sandaili leizea?*) lotutako gaztelu gehiago egon zela uste baitu.

*Zumeltzegi* oraingoz ez dute gaztelu modura onartu, aipatzen diren inguruko harresiak aurkitu ez dituztelako oraindik. *Kastillokoa* baserria baztertu egiten du berak, bai baserriak eta baita honi lotutako *Kastilloko eskortak* Kastillo abizenearan due-

lako jatorria.

Zerrendatutakoez gain, Arrietak uste du beste gazteluren bat ere egon zitekeela Oñatin, gaztelu hitzarekin lotura zuzena duen toponimorik ez egon arren.


Bestalde, ia gaztelutzat jo dezakegu *Gaboño* edo *Artia* mendiko hegoaldeko maldako aukera bat, Oñatiko mugatik 1,9 kilometrora (Donemiliaga, Araba). *Gaztelu haitzak* edo *Peña de Gazteluk* hainbat leku-izen eratorri sortu ditu (*Hayedo de Gaztelu*, *Gazteluko irtengunea*, *Gazteluko erreka...*). "Arroio de Gasteluguche" 1512. urtean aipatzen da, beraz, argi dago izena ez ziola eman Frantsesetako (Independenztzia gerrak) edo Karlistaldietako gotorleku batek. ■



Antton Arrieta, 2021. urtea

Iturria: "Euskal Herriko gazteluak. Gipuzkoa" liburua

Oñatiko gaztelu eta balizko gazteluen kokalekuaren planoak (Yoseba Alonso) eta *Euskal Herriko gazteluak - Gipuzkoa* (Elkar, 2021) liburuaren azala



**ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 0 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



# Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi  
zaituztegu,  
**Arrasate/  
Mondragonen**  
bertan ere artuko zaitu  
Zuatzu Klinikako  
espezialista-taldeak,  
hogei urtetik gorako  
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon  
943 792 018 . [www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)



Imanol Ugarte (baxua), Laurendi Ugarte (gitarra), Naiara Urzelai (ahotsa), Ander Korkostegi (gitarra) eta Iñaki Zubia (bateria) osatzen dute Larru Beltzak taldea. Aurretik *Golpe de Estado*, *Papalagi*, *Sospechosos*, *Antihumano*, *CC267...* taldeetan ibiliak, 2019an sortu zuten taldea, aparteko asmorik gabe. Baina, poliki poliki, abestiak sortuz joan ziren eta, pandemiak ipinitako traba guztiei aurre eginez, diskoa grabatzea erabaki zuten iaiz.

Azkarateko Itxura estudioetan grabatu zuten bateria, Fran Perezen gidaritzapean, eta gainerako instrumentu guztiak lokalean eta Iñaki Zubiaren estudioan grabatu dituzte. Nahasketak ere beraiek egin dituzte eta masterizazioaz Estanis Elorza (Dr. Master) arduratu da.

Punk-rock estiloko zortzi abesti biltzen ditu diskoak, eta egunerokotasuna nahiz gai pertsonalak jorratzen dituzte testuetan. Xabi Elorza 'Txirli', Jon Ander Osinaga, Joseba Azkarate eta Andoni Iñurritegi 'Pottoko'ren kolaborazioa izan dute zenbait abestitan. Diskoaren diseinua ere Andonirena da.

Kalean dago jada CD berria. Boga, Arrano eta Ikatz tabernetan egongo da salgai. Oraingoz ez daukate kontzerturik lotuta, baina diskoa zuzenean aurkezteko gogotsu daude.

'Nork epaituko du epailea?'

## LARRU BELTZAK TALDEAREN LEHEN DISKOA KALEAN

Punk-rock estiloko zortzi abesti bildu dituzte. Boga, Arrano eta Ikatz tabernetan eskura daiteke diskoa.

 <b>ARRIZABALAGA</b> <b>Aroztegia</b>	 <b>PAKITA</b> <b>Altzariak</b>
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

## IRAZOLA

### Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserniko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754





## Giltzapeko oihuak kantaren bideoklipa egin du Bizarrok

Bizarro rock taldeak maiatzean plazaratu zuen bere lehen diskoa, *Dshumanizazioa*, sare sozialen bidez. Abenduan, formatu fisikoan argitaratu zuten, eta urtea borobiltzeko, *Giltzapeko oihuak* kantaren bideoklipa atera zuten gabon zahar egunean. "Garbi geneukan, hasieratik, gure lanaren ardatza ez zela soilik musika izango" adierazi digute taldekideek. "Diskoa USB formatuan atera genuenean, bertan bideoklipa sartzea zen gure asmoa, baina orduan ez zen posible izan".

Horrek bere alde ona ere izan du, ondoren patxada handiagoz landu eta borobildu ahal izan dutelako bideoklipa, Bernat Alberdiren gidaritzapean. Sekuentzia motz eta, nolabait, desordenatuak erabili dituzte, gaixotasun psikologikoak dituen jendeak bere buruan izan ditzakeen irudikatzen. "Pertsona batek bere barne-munduan bizi ditzakeen gatazkak irudi piktorikoz marraztu dituzte zuzendariak, artearen historiari hainbat erreferentzia eginez".

Ainhoa Larrañaga aktorea da bideoklipen protagonista, eta oso eskertuta daude Bizarro taldeko kideak, erakutsi duen jarrera eta inplikazioagatik. Larrañagarekin batera, beste hainbat herritarrek ere parte hartu dute bideoklipen, aktore lanetan zein talde teknikoan (jantziak, karakterizazioa, FXean...). "Horien guztien lana ezinbestekoa izan da, eta nahiko genuke ikusleak erreparatzea bideokliparen atzean dagoen lanean. Herri honetan konpromisoa eta kalitatea soberan dagoela argi geratu da, beste behin". Udaleko kultura sailari ere eskerrak eman nahi dizkiote, lan hau burutu ahal izateko emandako dirulaguntzagatik.



Behoko QRa eskaneatu bideoklipa ikusteko



## Regetoi erritmoak, Potx eta Lotxen bideoklipen

Pandemia ditzosozkoak goitik behera baldintzatu du kultur sortzaile askoren jarduna. Potx eta Lotx pailazoek ere atzeratu egin behar izan dituzte irailean estreinatzeako zituzten proiektu berriak. Baina, aldi berean, bizirik eta lanean dihardutela erakutsi nahi zuten, eta, hala, bideoklip martxoso bat grabatu dute, beraien jarraitzaileen egarrira asetzeko.

Labean duten disko berritik ateratako *Txunpa Txun* abestiaren gainean sortu dute bideoklipa. "Regetoiaren parodia egiten duen abesti martxoso eta apurtzailea da" adierazi digu Josu Zubiak. Berea da musika, eta Txinparta Bertso Eskolako Urko Arregirena letra. "Jendeak entzun dezala nahi duen musika, baina kontziente izanik. Horixe da abestiaren mezua. Dantza egiteko eta ondo pasatzeko abestia da eta, bide batez, inori zer pentsatua ematen badio, hobe". *Goazen* teleailean ezagun egin den Asier Burguete aktorearen kolaborazioa izan dute bideoklipen. Udaleko Gazteria sailaren laguntza ere jaso dute.



Behoko QRa eskaneatu bideoklipa ikusteko



### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

# AHOZKOTASUNAREN MAGIA

'Ahoz aho' nazioarteko jaialdiarekin elkarlanean, goi mailako hiru narratzaile ekarriko ditu udal liburutegiak

INTUJAI TEATROk antolatuta, 2008tik aurrera antolatzen da **AHOZ AHO** (Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdia), Tolosa eta Ordiziaren babesarekin. Azkenaldian, baina, gero eta herri gehiago ari dira parte hartzen '**AHOZ AHO ZABALIK**' proposamenari esker eta, hala, aurten Oñatiko udalak ere bat egitea erabaki du. Horri esker, udal liburutegiak hiru saio berezi antolatu ditu, bat umeentzat eta bi helduentzat, ipar Euskal Herriko, Uruguaiako eta Kolonbiako narratzaileekin.

Ahozkotasuna balioan jartzea da AHOZ AHO jaialdiaren helburua. Noizbait ipuinen bat kontatzen saiatu den edonork

primeran daki ipuinak kontatzea zein irakurtzea ez dela zeregin erraza. Narratzaileek estrategia eta teknika ezberdinak erabiltzen dituzte (bolumena, intonazioa, abiada, etenak, komunikazio estrategiak...) ikusleengana hurbiltzeko.

Antzinatik datorren ohitura hau indartzeko asmoz antolatzen da AHOZ AHO jaialdia. Gaur egun ere, gure arbasoek egiten zuten bezala, denbora hartu, hitzak sentitu eta irudimena askatzeko bidai zoragarria izan daiteke ipuin kontaketa saio bat. Ukiezinen garrantzia.



## 'ELEKAREN IPUIN SORTA'

Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray

**OTSAILAK 18** (17:30 eta 18:15)  
6 URTETIK GORAKOENTZAT

2006an ipar Euskal Herrian sortutako Eleka konpainiako kide dira Kattalin eta Jokin. Arlo honetan euskarak behar zuen lekua emateko asmoz sortu zuten taldea, antzerki jokoa eta musika uztartuz. Iaz, 'Hala izan ala ez izan' diskoa argitaratu zuten, 15 ipuinez osatua. AHOZ AHO jaialdiaren bidez iritsiko dira Oñatira. Sei urtetik gorako haurrentzako bi emanaldi (30') eskainiko dituzte Haur liburutegian.




## 'LA VIDA ES CUENTO'

Soledad Felloza (Uruguai)

**OTSAILAK 26** (18:30)  
HELDUENTZAT (gaztekeraz)

Aktorea, ipuin kontalaria, argazkilaria, idazlea eta antzerkigilea da Soledad Felloza. Galizian egoitza duen Atlantikoko Narrazioaren Nazioarteko Jaialdia zuzentzen du. AHOZ AHO jaialdiaren bitartez hilaren 26an etorriko da Oñatira. 'Ilusioak, ametsak, ipuinak... Zer da bizitza?' galderari erantzuten saiatuko da. Gonbidapenak **otsailaren 16tik aurrera** Txokolateixan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)-en.



## 'MAESTRA PALABRA'

Nicolas Buenaventura (Kolonbia)

**MARTXOAK 5** (18:30)  
HELDUENTZAT (gaztekeraz)

*Cuentero* (eleketari, berri-jario) bezala definitzen du bere burua Nicolas Buenaventura kolonbiarrak. Zine errealizadorea eta gidoigilea ere bada. AHOZ AHO jaialdiaren eskutik Oñatira etorriko da martxoaren 5ean 'Maestra palabra' saioarekin. Aurretik argitaratutako obra ezberdinetako hainbat ipuin kontatuko ditu kultur etxean. Gonbidapenak, **otsailaren 16tik aurrera** eskuragai.

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



## OSTEGUN KONTALARIAK OTSAILEAN BI SAIO



Udal liburutegiak antolatzen dituen Ostegun Kontalariak saioek (hileko azken ostegunetako ipuin kontaketa saioak) arrakasta handia dutela ikusita, zenbait erabaki hartu ditu udaleko kultura sailak. Alde batetik, hilean bi saio antolatuko dituzte, eta sarrera-gonbidapenak banatzeko sistema ere aldatu dute (ikus ondoko taula).

Otsaileko lehen saioa **hilaren 18an** izango da. AHOZ AHO jaialdiaren bitartez, Kattalin Salaberry eta Jokin Irungarai izango ditugu geurean 'Elekaren ipuin sorta' kontatuz (+6 urtekoentzat). Bestalde, **hilaren 25ean** Ines Bengoak 4-5 urteko haurrentzako 'Karabi karaba' saioa eskainiko du. Batean zein bestean bi emanaldi (30') egongo dira, 17:30 eta 18:15etan. Baterako zein besterako, otsaileko lehen astean eman behar da izena udal liburutegian.

## Zabalik daude 'Geuretik sortuak' eta 'Katapulta Tour' programetan parte hartzeko izen-emate epeak

Zinegile, antzerki konpainia eta idazleei zuzenduta, Udalbiltzak sortu duen 'Geuretik sortuak' programaren baitan emango dituen sormen bekak eskatzeko epea zabalik dago. Hautatuak diren artistek hiru astera arteko egonaldiak egingo dituzte sormen lanak garatzeko. Idazketa lanetarako 2.500 euro, antzerki sorkuntzarako 15.000 euro arte eta film laburrak ekoizteko 30.000 euro arteko laguntzak emango dira. Izena emateko, [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus).

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Katapulta Tour-2021' zirkuituan antolatuko diren musika eta formatu txikiko arte eszenikoetako emanaldietan parte hartuko duten artistak aukeratzeko deialdia egin da. Informazioa: [www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus).

## OHARRA

### Ipuin kontaketa saioetarako gonbidapenak lortzeko sistema aldatu du udal liburutegiak

Azken aldian liburutegiak antolatzen dituen ipuin kontaketen arrakasta ikusita, bi aldaketa nagusi egitea erabaki dute udal liburutegiko arduradunek.

- Otsailetik apirila arte, hilean **bi OSTEGUN KONTALARIAK** antolatuko dira: bata **4-5 urtekoentzat** eta bestea **+6 urtekoentzat**. Beraz, eskaintza bikoiztuko dugu!!

- Otsailetik aurrera eta berriro jakinarazi arte, gonbidapenak lortzeko sistema ere honako hau izango da:

#### GONBIDAPENAK ESKURATZEKO SISTEMA

1. Hilaren lehenengo astean (astelehenetik ostiralera) izena emateko epea irekiko da. Umearen izena eta telefono zenbaki bat eman beharko dituzu.
2. Izena emateko aukerak: Telefonoz: 943 71 61 11 / Korreoz: [liburutegia@onati.eus](mailto:liburutegia@onati.eus) / Whatsappez: 688 732 826
3. Lehen aste horretako ostiral arratsaldean (19:30) zozketa egingo dugu parte-hartzaile guztien artean.
4. Liburutegia zortedunekin harremanetan jarriko da eta gonbidapen bat edo bi nahi dituzten galdetuko die (haur bakoitzeko bi gonbidapen izango dira gehienez).
5. Zozketan, erreserbako beste hiru izen aterako dira.
6. Joaterik ez baduzue, jakinarazi liburutegian eta erreserbako haurrei eskainiko zaie zuen gonbidapena.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
[onati@gualbiasesores.com](mailto:onati@gualbiasesores.com)  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

## MUSIKA

**OTSAILAK 19 / 20:00****ARIMA**

Paule Bilbaok 2018an sortutako taldea da. Otsailaren 25ean *Biluztasunez jantzita* bigarren diskoa plazaratuko du, eta Oñatin aurrerapentxo bat eskainiko dute. Langabetuek 3€, langileek 5€. [Antixena gaztetxean](#).

**OTSAILAK 20 /****LA EXCAVADORA**

La Excavadora punk-rock talde berriak izen bereko lehen diskoa aurkeztuko du. [Gaztelekuan](#).

**OTSAILAK 28 / 12:00****AMEBA**

Usurbilgo laukoteak bere lehen diskoa 'Elikautz' aurkeztuko du. [Antixenan](#)

## TAILERRAK

**OTSAILAK 7 eta 14 / 19:00****ILUNTZE MOREA**

'Mugarik ez! Transnazionalik ez!' gaia jorratuko da, Bargastak eta Oñatiko Sare Feministak antolatuta. [Antixena gaztetxean](#).

**OTSAILAK 14 eta 21 / 12:00****ERROMERIXA TAILERRA**

Erromerietan ohikoak diren euskal dantzak ikasteko aukera. [Antixena gaztetxean](#).

**OTSAILAK 20 / Goizez****MUSIKA TEKNIKARI**

Musika ekipoak, argiek eta eskenatokiko

gainerako tresnek nola funtzionatzen duten ikasteko. [Antixena gaztetxean](#).

**KATALAN IKASTAROA (OINARRIZKOA)****KATALAN ESKOLAK**

Oinarrizko katalan ikastaroa, asteartetan, 18:30-19:30. [Antixena gaztetxean](#).

**DEIALDIA****BATUKADA**

*Bargastak* talde feminista bultzatuta, batukada bat antolatzen dabilza [gaztetxean](#).

## ANTZERKIA

**OTSAILAK 6 / 17:00****HANSEL ETA GRETEL**

Borobil Teatro taldearen eskutik, 6 urtetik gorakoentzat (3,5€). [Santa Ana aretoan](#).

**OTSAILAK 12 / 19:00****'ATZERIAN LURRA GARRATZ' ESTREINALDIA**

Artedrama taldearen antzezlan berriaren estreinaldia, Ander Lipus eta Laura Penagosekin, Amancay Gaztañagaren zuzendaritzapean (10€). [Santa Anan](#).

**OTSAILAK 14 / 16:30 eta 18:00****'MARI ETA GAILETA FABRIKA'**

Eidabe taldearen antzezlan, 7 eta 14 urte arteko gazteei zuzenduta. (3,5€). [Santa Ana aretoan](#).

## HITZALDI-SOLASALDIAK

**OTSAILAK 4 / 19:00****1G, 2G, 3G... ZER DIRA?**

KZguneaTIC youtube kanalean on-line. Sarrera librea. [KZguneatic](#).

**OTSAILAK 8 / 18:15****HELDUEN TOKIA HAURREN GARAPENEAN**

Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzenduta. Izen-ematea: [ainhoa@onati.eus](mailto:ainhoa@onati.eus). [Santa Ana aretoan](#).

**OTSAILAK 9 / 18:00****PINUTIK EUKALIPTORA?**

Hizlaria: Arturo Elosegi, EHUko irakaslea, ekologian katedraduna. [Kultur etxean](#).

**OTSAILAK 9 eta 11 / 19:00****LUDIFIKAZIOA, DENA DA HOBEA JOLASTEN**

KZguneaTIC youtube kanalean on-line. [KZguneatic](#).

**OTSAILAK 10 / 18:00****LURRAREN BIDEAN**

Euskal Herriaren historia geologikoaren inguruko dokumentala eta solasaldia. [Kultur etxean](#).

**OTSAILAK 16 eta 18 / 19:00****GOOGLE LENS. ZURE KAMERAREKIN BILATU**

KZguneaTIC youtube kanalean on-line. Sarrera librea. [KZguneatic](#).

**OTSAILAK 17 / 18:30****FLUXU MIGRATORIOAK ETA EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK KULTURA ANITZEKO TESTUINGURUAN**

Hizlariak: Imanol Esnaola (Gaindegia behatokia), Andoni Olariaga (Iratzar fundazioa) eta Maggie Bullen (EHUko antropologia irakaslea). EH Bilduk antolatuta. Sarrerak (dohain) [www.onati.eus](http://www.onati.eus) eta Txokolateixan. [Santa Ana](#).

**OTSAILAK 23 eta 25 / 19:00****ARGAZKIGINTZA MUGIKORRA. AHOLKUAK**

KZguneaTIC youtube kanalean on-line. Sarrera librea. [KZguneatic](#).

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40



**TERTULIXAN**

**UXUE ALBERDI  
IDAZLEAREKIN  
SOLASEAN**

**OTSAILAK 23 / 18:30**  
SAIO IREKIA



Udal liburategiko euskarazko Tertulixan saioak Uxue Alberdi idazlea gonbidatuko du hil honetan, *Dendaostekoak* idazle elgoibartarraren azken nobelari buruz hitz egiteko, Yurre Ugartek dinamizatuta. Saio irekia izango da, interesa duten herritar guztientzat. Aforo mugatua. Gonbidapenak, otsailaren 16tik aurrera [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eta Txokolateixan. **Zine aretoan.**

**TERTULIXAN SAIOAK**

Psikologiako irakurle taldea hilaren 9an bilduko da *Apegos feroces* (Vivian Gornick) liburuaz hitz egiteko. Gaztelerazko irakurle taldeak hilaren 2an egin zuen bere saioa. Bestalde, Idazketa lantegiak hilaren 22an egingo du hurrengo saioa.



**Hileko gomendioa**

Gatazka bati buruzko liburua da hau, neurri batean azaltzen du zer gertatu den Estatu Batuetan azken urteotan eta zer etor daitekeen hurrengo urteetan. Lehen demokrazia modernoaren aurpegi ezkuatuari buruzko liburua da.

**Liburua**



**FARMAZIA**

**ANDUAGA**

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Otsailak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28.  
Martxoak 8 eta 9.

**IGARTUA**

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Otsailak 10, 11, 19, 20 eta 21.  
Martxoak 1 eta 2.

**GARATE**

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Otsailak 4, 12, 13, 14, 22 eta 23.  
Martxoak 3 eta 4.

**ULDAIN**

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Otsailak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.  
Martxoak 5, 6 eta 7.

**ZINEA**



**Otsailak 4 - 8**

**ZINE KLUBA:**

**Honeyland**  
**NAGUSIAK:**  
**Sentimental**  
**GAZTETXOAK:**  
**Los croods**  
**una nueva era**



**Otsailak 18 - 22**

**ZINE KLUBA:**

**Deseando amar**  
**NAGUSIAK:**  
**La chica del brazalete. ESTREINALDIA**  
**GAZTETXOAK:**  
**Tofu, el pequeño guerrero**



**Otsailak 11 - 15**

**ZINE KLUBA:**

**Dehesa, el bosque del lince ibérico**  
**NAGUSIAK:**  
**El padre**  
**GAZTETXOAK:**  
**Mina y el mundo de los sueños**



**Otsailak 25 - Mar. 1**

**ZINE KLUBA:**

**Las niñas**  
**NAGUSIAK:**  
**El profesor persa**  
**GAZTETXOAK:**  
**100% wolf: el pequeño gran lobo**



**MERKATU TXIKIA**

**KLASE PARTIKULARRAK** Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126

**GARAJEA EROSI** Honako kaleetan edo inguruan garajea erosiko nuke: Portu, Lope de Agirre, Bakardadeko Ama, Mendiko Kale eta San Juan kale. Telefonoa: 688 304 704.

**ETXEBIZITZA ALOKAGA** Jacan, eski denboraldirako. Herri erdialdean dago. 943781860 / 659291684.

**ODOL ATERALDIA**

**OTSAILAK 12 / 16:30-20:00**  
Enpresagintza fakultatean



**TABERNA • JATETXEA**

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; INGO XONAU (6)

## BERDURA PLAZAN

Jon: Gaur plaza-eguna don eta, fango gaittun zer barri daguen ikustera?

Amaia: Ondo xagok, guazak!

J: Orainddiok be Gabonetan egindako betekadai buelta emun ezindda ñabin eta, ondo etorriko xakun berdura pittin bat erostia.

A: Orainddiok hola habil? Gabonak aspaldik pasau zittuan, e!

J: Egixa don, baiña jan-edanak etxakon akaberarik gure etxian; Errege ostian be euki xonagu frittadaren bat edo beste, eta holakuetan jatiari ezin itzi!

A: Bai, hala dok; izan be, jaten hasten zareñian, garoiñetan be hestiak dittuzuela esan lleikek!

J: Horregatik, ba, orain berduriari heldu bihar txanagu; ia, ba, porru-salda batzuk hartuta irabazittako kiluak gaitzen dittugun!

A: Egixa dok, saldia lakorik etxagok: porru-saldia, leka-saldia, berakatz-saldia. Horreik danak onak, barruak garbiketako!

J: Asun-ura be ona dala esaten xonai!

A: Etxakixat, ba! Horrekin kontuz ibilli, odola larregi meheketan xok-eta!

J: Begira, han xagon Maria. Guazan bere postura, ia zer berdura ekarri dauen ikustera!

Maria: Zer bihar dau, ba, parejatxo honek?

J: Urte zaharretik ezgara ikusi eta urte barri on, lehenengo eta behin!

M: Halan ekarri, halan ekarri!

J: Berduratara etorri gara. Zer dakozu, ba, gaurkuan?

M: Danetik ekarri dot, gaur goizian, lehenengo orduan, batuta: azaak, koniflorak, porruak, borrajak... Zein dozue, ba, gustukuen?

J: Neri danak, baiña azia lakorik labiarekin jateko...

M: Ba, babia be badakot. Zenbat ifiñiko dotsut?

J: Amaia, zenbat erosiko xonagu?

A: Kilo bat gutxienez, eta bi azaburu.

M: Besterik? Gaztaia eta intxaurrek be badakot, ba, on askuak!

J: Ifiñi gaztaetxo bat, orduan, itxura oso ona dako-eta! Eta libra eta erdi intxaurre!

A: Ahaztu aurretik, porru-sortatxo bat be ifiñi eta perrejillik badakozu, be bai.

M: Bai, bai, perrejilla badakot, autso sortatxo hau! Tortillan jateko be oso ona dozu!

J: Nahikua izango don, ala? Bestela, Gabonetakua pasauko xakun berriz be: orduan irabazittako kiluak uda arte galdu eziñik ibilliko gaittun, eta hori ezton kontua!

A: Arrazoia dakok!

J: Ondo segi, Maria. Gorantziak etxequai eta hurrengo arte!

M: Bai, lehenengora arte!





## ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



### Ikurriña legeztu zanakua

**H**a be pasau zan. Franco hil barritan, **transiziñoko urte nahasi hareitan** esperantzia, ilusiñua eta **aldaketa-gogua** eukan gizartiaren zati haundi batek; **baitta kezkoa eta bilddurra** be. Gauza asko bizi izan gittuan denbora gutxian, onerako eta txarrerako: esate baterako, 1976ko martixan Bitorrixako gertaera latzak eta maiatzian Montejurrakuak, hildako eta zauritu morduekin, ikaria sartzeko modukuak izan ziran. Urte bereko garagarillian, euskal foruen kentzeiaren mendeurrena zala-eta, Bergaran egin zan konzentraziñuak aldaketa-guria garbi agertu eben. Giro haretan inddartu ziran, bestiak beste, **amnstiaren aldeko kanpaiñak** edota **ikurriñaren legalizaziñuarena**.

Ikurriñarena **1977ko ilbaltzaren 18xan** lortu zan. Hillabete batzuk lehenago **M. Fraga Iribarne** gobernaziño-ministro agozabalarekin eziñezkoa zana (*“para legalizar la ikurriña tendrán que pasar por encima de mi cadáver”* bota eben), haren ondorengo **R. Martín Villa** ministro pragmatikuagoarekin eskuratu euen Bergara, Mondrague, Azkoitti, Etxarri Aranatz, Oiartzun eta beste herri batzuetako alkate saiatuak. Hartarako lan gogorra egin zan aurreko hillabetietan udaletan eta beste esparru batzuetan: gogoratu, esaterako, 1976ko abenduaren 5ian **Joxe Anjel Iribarrek** eta **Iñaxio Kortabarriak** Atotxako futbol-kanpuan ikurriñarekin urten euenekua.

Oñatin, beste leku askotan letxe, 1977ko ilbaltzaren 19xan, San Sebastian bezperan, onartu eta ospatu zan legalizañua. Illunkaran aktia firmau ondoren, udaletxeko balkoi nagusixan esegi zan ikurriña Espaiñako banderiaren aldamenian. Orduko **udalgizonak** (artian ez eguen emakumerik kontzejuan) ondorengo honeik izan ziran: **Joxemari Leturia**, alkate moduan, **Reyes Korkostegik** aurreko agorrian dimitidu euelako; **kontzejalak**, barriz, alfabetikoki **Luis Arkauz**, **Markos Arrazola**, **Joxemari Egaña**, **Bixente Egaña**, **Teofilo Etxegoien**, **Juan Igartua**, **Jesus Mari Isasmendi**, **Gurutz Jausoro**, **Santi Kortabarria** eta **Iñaki Zelaia**; **idazkari-lanetan Florenzio Guridik** jardun eben.

Plazan zain eguen jente-pillia txaloka hasi zan ikurriña ofizialki jarritta ikusi ebenian. Ondoren **Oñatz** taldekuak dantza egin euen. Gaurko fotografia batian **Jesus Irizar** eta **Alberto Arregi** agiri dira zeregin horretan. Bestian **dantza-talde osua** dator udaletxeko areto nagusixan eta ikurriñaren aurrian. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue:

Goiko illaran zutik: **Elena Atxa**, **Pili Kortabarria**, **Tere Igartua**, **Mila Igartua**, **Mila Madinabeitia**, **Beatriz Igartua**, **Txaro Uribetxeberria**, **Aitor Arza** eta **Lurdes Elorza**.

Erdiko illaran makurtuta: **Jabier Arabaolaza**, **Benjamin Mugarza**, **Fernando Diaz**, **Jesus Irizar**, **Iñaki Urzelai** eta **Nikolas Negueruela**.

Behian, jazarritta: **Alberto Arregi**, **Juan Jose Zubia**, **Juanjo Unzilla** eta **Anton Umerez**.

Argazkixak J. L. Plazaolak ataratakuak dira eta guk Iñigo Arregiren bidez eskuratu dittugu.

Argibidiak Iñigok berak, Izar Salaberrik, Joxe Mari Egañak eta Jesus Irizarrek samurtu doskue. Eskerrik asko!

# Estreinatu jangela berria modurik erosoenean.

**Amuebladora Mondragonesan** zure  
erosketa eta proiektu guztiak finantziatzen ditugu,  
12 hilabetetan INTERESIK GABE ordaindu dezakezunez,  
zergatik ez gaurtik disfrutatzen hasi?